

ZERAIN
URTEKARIA
2007



Begiratu zientziari beste era batera

gizarte ekintza


hezkuntza



Kutxak, bere Gizarte-Ekintzaren bidez, zientzia jolasgarriago bihurtzeko formula zehatza aurkitu du, **Zientziaren kutxaGunea**.

Ingurunean duguna hainbat sistema elkarreragileren bitartez uler dezagun asmatutako gune bat. Hemen ukitu, behatu, ulertu, gozatu egin baitezakezu. Zatoz eta begira egiozu munduari beste begirada batez.

- 170 esperimentu interaktibo.
- 10 erakusketa finko (gaikakoak).
- Planetarium digitala eta Planetarium Txikia (umeentzako).
- Elektrizitate-tailerra.
- Denboraldi baterako erakusketak.
- Ikastetxeetarako hezkuntza-programak eta material didaktikoa.
- Animazio-ekintzak eta adin guztietako jendearentzako zuzeneko ikuskizunak.
- Aparkalekua, dohainik. Erraz iristen da Museora.



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

**Zatoz Zientziaren
kutxaGunera**

Mikeletegi Pasealekua 45. DONOSTIA

Asteartetik ostiralera, 10:00etatik 19:00etara (udan, 20:00etara)

Larunbat, igande eta jaiegunetan, 11:00etatik 19:00etara (udan, 20:00etara)

Itxita egongo da astelehenetan (abuztuaren izan ezik) eta egun hauetan: urtarilaren 1ean, urtarilaren 6an, urtarilaren 20an eta abenduaren 25ean.

Goizez bakarrik egongo da zabalik abenduaren 24an eta abenduaren 31n.

Kaixo irakurle!

Abuztuarekin batera Andramari eta San Roke jaiak heldu dira Zeraina, eta hauekin batera urtekariaren ale berria kaleratu dugu. Eta ia oharkabean, 20. alea egin dugula konturatu gara. 1988an hasitako bidean, zailtasunak zailtasun eta nekeak neke, urtero iritsi da festetarako garaiz urtekaria.

Ez da lan makala Zerain bezalako herri txiki batean, oso-osoki herritarrek egindako urtekaria kaleratzea. Baina horrela, historia, gure historia, ari gara idazten. Ea beste urte askoz horrelaxe jarraitzeko biderik izaten den.

Beti bezala gure eskerrik beroenak urtekari hau egiteko beren lantxoa eta lan potoloagoa egin dituztenei eta mila esker baita, diruz lagundu dutenei.

Ale hau ere zure gustukoa izango delakoan eskerrik asko zuri ere, irakurle, eta datorren urtera arte.



Artikulua

Orrialdea

Sarrera.....	3
Elkarrizketa.....	6
Ekintzak.....	14
Berrikuntzak.....	20
Aipagarriak.....	22
Agenda21.....	24
Aratz-Aizkorri parke naturala.....	26
XaguArtea.....	28
Izana izen eske.....	34
Pelleta.....	36
Bertsoak.....	38
Gaztetako ibilerak.....	39
Mina inguruko aldaketak.....	40
Bizirik dagoen elkartrukea.....	41
Paisajea eta jendea.....	44
On Juan Goikoetxea.....	45
Turismoa Zerainen.....	46
Aldabe eta Aizkorpe bailara.....	48
Zerainen historia.....	49
Gazteak.....	50
Haurren txokoa.....	52

Egilea: Oa Kultur Elkarte

Azala: Joxemari Telleria

Diseinua eta maketazioa: Ion Muñoa

Argazkiak: Udaleko artxiboa, Herri-eskola, Otatza, Larraondo, XaguArtea, Mikel Zalbide

Laguntzaileak: Aitziber Makazaga, Kontxi Errasti, Andoitz Telleria, Mari Flor, Mariajexux eta Elena Mendizabal

Inprimategia: Antza Lasarte-Oria

Zerainen, 2006eko abuztuak 13

MARKOS ALUSTIZA

«Gerran momentu guztiak igual samarrak dira; denak gogorrak»



Isilik. Halaxe egon dira urtetan Espainiako Gerra Zibila bizi izan zuten asko eta asko. Batzuk beldurragatik; beste batzuk, berriz, gerrak erangindako mina atzera biziberritu nahi ez zutelako. Horietako bat da Markos Alustiza (1910); azken urte hauetan hasi da Espainiko Gerrako konturen batzuk esaten urte mordo batean isilik egon eta gero. Protagonistarik gabe gelditzeko zorian dagoen sasoi bateko ondarea da Alustiza. 97 urte ditu. Eusko Gudarosteko sarjentu egin zutenean baino 70 gehiago. Gudari eta EAJko kide izandakoa; eta beraz, Errepublikaren alde borrokan ibiltakoa da Alustiza.

Zerainen, Sagastibil baserrian jaio zen Markos Alustiza. Eskolan noiz hasi zen garbi gogoratzen ez duen arren, badaki bospasei urte ingururekin hasiko zela, garai hartan denak hasten ziren bezala. Don Klemente izan zuen eskola maisu Alustizak. Eliza maisu, berriz, Don Manuel, Don Serapio eta Don Bizente, hiru apaiz baitzeuden 10eko hamarraldian Zerinen. Eskola orain plazako pilotaleku txikia dagoen lekuan zen orduan, Ganbaratxo azpiko eskola zaharra ez zuen ezagutu Alustizak. Bost bat urteren buruan amaitu zuen eskola, hamar urterako atera baitzuten handik baserrian lanean hasteko. Eskola garaiko oroitzamen gozorik ere ez du Alustizak: "Ogi koskorren bat txokolatearekin baldin baten, hura hartu bazkaltzeko Ganbaratxon eta eskolatik ateratakoan korrika etxera, jolas gutxi orduan".

Gaur egun baserri gehienak hutsi dauden arren, Lasurtegi auzoko etxerik gehienetan bizi zen norbait Alustizaren ume garaian. Sagastibilen, Migelenen, Zikirin, Pikasarrin, Barrenetxan eta Latxen ezagutu zuen jendea. Antonen eta Goenetxan ez zen inor bizi ordurako. "Gehiena erorita zegoen ordurako", dio Alustizak Goenetxe aipatzean. Latxez hizketan hastean berriz, baserri azpiko aldapa ekarri du gogora: "Behetik gora zihoan gurdibideak arbela besterik ez zuen eta han ibiltzen ginen irristaka".

Igeltsero Oñatin eta Irunen

Hamar urterekin eskola bukatu eta etxerako geratu zen Alustiza. Gero gau eskolan pixkat batean ibili zen, baina "ezer askorik ez". Etxetik

Comandante de Batallón N.º 1 de Artillería "SANTA" de Puerto Rico, Guayama, P.R.
Controlado por Cuartel
Período del 1 al 15 de Agosto de 1907

NOMBRES NOM-ABREVIAS	Edu- Cursos	CLASE EDUC. MILETAN	Puntos por Ex- amen Puntos Puntos	TOTAL PUNTOS Puntos	
VIADA MATE		CUARTA COMPANIA			
Sebastián Elizalde Elizalde	25	Capitán	72.305	72,50	
José Amador Alustiza	*	Suboficial	72.346	200,--	
Segundo Galdames Elizalde	*	Aspirante	72.400	180,--	
Primera Región					
Nicolás Larrea Larrea	*	Teniente	72.336	200,--	
Marcos Alustiza Arasa	*	Sargento	72.337	180,--	
Juan Arasa Leta	*	*	72.307	180,--	
Adolfo Elizalde Gualakapari	*	*	72.322	180,--	
Pedro José Arasa Alustiza	*	*	72.321	180,--	
Marcos Alustiza Arasa	*	Sargento			
Victorio Galdames	*	*	72.305	180,--	
José María Izaguirre Izaguirre	*	Ordari	100.890	180,--	
Juan José Gualakapari	*	*	72.407	180,--	
María Galdames Galdames	*	*	72.318	180,--	
Julian Galdames Galdames	*	*	100.833	180,--	
María Galdames Galdames	*	*	80.007	180,--	
García Galdames	*	*	80.001	180,--	
María Galdames Galdames	*	*	80.003	180,--	
María Galdames Galdames	*	*	100.018	180,--	
María Galdames Galdames	*	*	72.061	180,--	
María Galdames Galdames	*	*	72.060	180,--	
María Galdames Galdames	*	*	100.804	180,--	



GURE ESKERRIK BEROENA
OA KULTUR ELKARTEAREN
IZENEAN **ZERAIN DEZAGUN**
FUNDAZIOARI

kanpo hemeretzi urterekin hasi zen lanean, "Aizperrotako igeltseroarekin". "Hura Oñatin ibilita zegoen. Egunen batean harekin kontutan jarri eta esan zidan: 'oñatira joan behar duk hik igeltsero ikastera' eta Oñatira eraman ninduen". Gogoan du Alustizak oinez nola joan ziren Oñatira. Ez zen, antza, jende askoko bidea, hura. Bi urte pasa zituen Oñatin igeltsero laneatan Alustizak. Handik berri, Hondarribi aldera egin zuen. Izan ere, Antsostegiko Jex Anjelek arreba Anttoni zuen Hondarribian eta haren etxera joateko esan zion. Inguru haietan bazen lana orduan, Irunen langile etxeak, casa baratas, eraikitzen ari ziren eta. Gero berri, Iruna joan zen izebaren, amaren ahizparen etxera, hura Zegamako Aseginolaza batekin ezkondu Irunen bizi baitzen. Izan ere, Aseginola hau mikeletea zen eta Iruna bidali zuten mikelete lanetara.

Errepublikaren garaian harrapatu zuen soldaduskak Alustiza. Irunen zegoen orduan eta urtebeteko joan behar izan zuen soldaduska egitera. Aurrez hiru urtez egon behar izaten zuten gazteek soldaduska egiten, baina errepublikarren gobernuak urte batera jaitsi zuen. 1931ko Errepublikarekin gauzak asko aldatu ziren Espainian eta baita Euskal

«Segituan jaitsi nintzen Gernikara behera. Sua ikusi nuen alde guztietan. Etxe zaharrek dena azpian hartuta zeukaten»

Herrian ere. Nazionalistek indar handia hartu zuten zenbait herritan; hainbat udaletxetatik zintzilik jarri zituzten Ikurrina eta Errepublika bandera dira horren adierazle. 1934an hauteskundeak izan ziren eta ordurako giroa nahiko nahasia zegoen. Zerainen ere, beste zenbait herritan bezala, nazionalistak izan ziren garaile. "Errepublikak denbora gutxi iraun zuen, 36an beste horiek sartu ziren eta", dio Alustizak.

Anaia anaiaren kontra

Espainiako Gerra Zibila 1936ko uztailaren 18an lehertu zen. Aurreko egunerako, ordea, zenbait herritara iritsia zen gerraren zurrumurrua. Gobernuak Gerra komiteak bando bidez adierazi zuen Euskal Herriko hainbat herritara miliziarrek zetoze.

Hala, askok alde egin zuten eta asko borrokara joan ziren. Batzuk Francoren alde eta beste batzuk Francoren aurka. Anaia batzuk bando batean eta beste batzuk bestean. Horixe izan zen Marcos Alustizaren kasua ere. Bera nazionalistekin errepublikaren alde aritu zen gerran. Anaia Joxe Mari, berri, erreketekin Francoren alde.

Garai hartan Irunen zegoen Alustiza. Baina ez igeltsero lanetan, eraikuntza lan guztiak geratuta baitzeuden dirurik ez zegoelako. Kaminoak konpontzen zebilen Alustiza, Diputazioarentzako lanean: "Kaminoak zuloa batean eta zuloa bestean zutela zeuden, haiek harriarekin bete eta berdindu egiten genituen; kamin-baztarrak ere garbitzen genituen". Orduko pezetan irabazten zuten orduan eta soldata "astero edo hamabostetik edo" ematen zieten. Errenteri eta Lezo alderainoko lanak egiten zituzten, bizikletan ibiltzen zen Alustiza batetik bestera. Bazkari ona Lezon egin eta atzera etxera, osabarenera erretiratzen zen Alustiza. "Bederatzi txakur handi zen bazkaria. Ordubeteko lanean irabazten zen soldatarekin txakur handi bat sobran". Hortan lanean zebilela piztu zen gerra.



ANAIAK GARAJEA

MEKANIKA ETA IBILGAILU-KONPONKETA

Guardiko Industri-Poligonoa // Tfnoa.: 943 80 11 32 // IDIAZABAL

Itxorta, Euskal Herriaren defentsaren ikur

Aurten bete dira 70 urte Itxorta mendiko borrokak izan zirela. Hori dela eta Eusko Jaurlaritzak han borrokan ibili ziren Eusko Gudarosteko gudariak omendu zituen aurreko apirilaren 29an. Hantxe izan zen Markos Alustiza ere. Guztira hamar-hamahiru bat gudari bildu ziren Elgetan, baina Alustizak dioenez, "ez zuten inolaz ere elkar ezagutu".

Itxorta mendiko borrokak Euskal Herriaren defentsaren ikur bilakatu dira. Izan ere, Elgetako frontean gudariak azaldu zuten gogortasunari esker sortu ahal izan zen Eusko Jaurlaritza, gerrako gabinet moduan izan bazen ere. Agirre lehendakariak zera esan zuen: Itxortako frontegatik izan ez balitz, bere karguari Gernikan zin egin beharrean, Kantauri itsasoan egin beharko ziola; huraxe baitzen geratu zitzaizen ihesbide bakarra. Horrexegatik beragatik 1936ko estatutuari Elgetako estatutua ere esaten zaio.

1936ko uztailaren 18an Espainiako Gerra Zibila hasi bezain pronto Francoren aldekoek Nafarroa eta

Araba osoa eta ia Gipuzkoa osoa hartu zituzten. Gipuzkoan Elgeta eta Eibar ingurua bakarrik zegoen errepublikarren eskuetan; Bizkaian, berriz, pronbintzia osoak iraun zuen gogor. Gudarien sei batailoik Francoren tropei aurrera egitea eragotzi zien. Frontea Lekeitiotik hasi, Elgeta eta Otxandiotik igaro eta Balmasedan amaitzen zen. Sei hilabetetan zehar hortxe egon zen errepublikarren eta frankisten arteko muga. Itxortako borrokei esker fronteak han iraun zuen 1937ko apirila arte eta hala, Euskal Herriko zenbait gunek (ia Bizkaia osoak eta Gipuzkoako zati batek) Eusko Jaurlaritzaren agindupena iraun zuten.

1937ko apirilaren 24ean Elgeta eta Eibar erori ostean, Bizkaia sartzeko bidea libre geratu zen. Hala, Francoren eta Mola jeneralaren tropek Durango bonbardatu zuten lehenik, gero berriz, Gernika. Bilbo bakarrik geratu zen errepublikarren alde, burdinezko gerrikoak babestuta. Ekainaren 19an erori zen bilbo, eta hala, Euskal Herri osoa Francoren eskuetan geratu zen.



1936ko uztailaren 18 hartan beste egunetan bezalaxe joan zen lanera Alustiza, baina lan lekuan inor ez eta etxera itzuli zen atzera. "Ni ezertaz enteratu gabe joan nintzen lanera, baina segituan hartu nuen zerbaitenn usaina". Handik hiru egunerako Dolores Ibarruri Irunen omen zebilen; han ezagutu zuen Alustizak Pasionaria. Irunen frontea sortu zen

Nafarroatik, Bida Bidasoatik zetozenen aurka. Abuztu alderako hartua zeukaten Irun. "Tiroketarik ez zen izan han, kanpotik jendea sartu eta su ematen hasi ziren". Jende askok Frantziara egin zuen alde, baina Alustiza hantxe geratu zen Irunen: "Han mendi bat bazen eta han egoten zen jendea eta ni ere bai". Frantziara alde egin zutenen artean

ziren Alustizaren osaba eta baita geroago emazte izango zuen Maria ere. Neskame joana zen hura Iruna eta lanean ari zen familiarekin egin zuen ihes Frantziara. "Ni bakarrik geratu nintzen; orduan errezena alde egitea zen".

Saseta batalloia

Iruni su ematen hasi zirenean

Donostiara egin zuten alde Alustizak eta. "Han San Bartolome komentuan jendea juntatzen hasi zen. Donostian ere berehala sartu ziren eta esan ziguten barku bat etorriko zela gure bila. Abuztuaren 13a zen. Barkua etorri zen Donostiko portura. Barkuan sartu eta Getaira eraman gintuzten. Getarian atera eta handik ere norabaitera joan behar eta Loiolara eraman gintuzten". Azpeitian gerra piztu zenean zenbait nazionalista Loiolan hasi ziren elkartzen Santutegia hutsik zegoelako. Izan ere, 1932an, II. Errepublika garaian Manuel Azañaren gobernuak lege bat jarri zuen indarrean, Jesusen Konpainiaren disoluzioa aginduz. Ia hango jesuita gehienak Belgikara joan ziren, bakarren bat Azpeitian gelditu bazen ere. Hala, uztailaren

20an kapitan batzuk eta beste zenbait militar joan ziren Loiolara Donostiatik, baita EAJko zuzendaritzakoak ere eta Eusko Gudarostea osatu zuten han. Parte hartu nahi zuena boluntario agertzen zen Loiolan eta Eusko Gudarosteko kide egiten zen. "Orduan bata bestea ez genuen ezagutzen. Han euskaldun batzuk, nazionalistak, eta errepublikar batzuk zeuden. Loiolatik zuzenean Gernikara joan ginen eta han sortu zen Saseta bataloia. 100 bat gazte egongo ginen bataloian soldadu, arma gutxi eta uniformerik eta ezer gabe. Gu Lekeitiora atera ginen. Ordurako Ondarru hartua zegoen. Han ez dakit zenbat denbora egingo genuen, hilabete pareren bat edo. Gero kanbiatu egin gintuzten. Baserri batean ere egon ginen erretiroan, han ganbaran egiten

genuen belar pilan lo. Fusilen bat eta pistolaren bat bagenuen, metrailadorerik edo antzekorik ez. Oinez ibiltzen ginen, zaldirik ere ez geneukan eta. Gernikan egon eta gero hasi ziren armak sartzen kanpotik. Saseta bataloiko burua, komandantea, Beldarrain zen. Hura Frantziara joan eta guzti egiten zen eta esaten zuen konprak han egiten zituela".

Gero Elgoibarren ere egon zen Alustiza, baina denbora gutxi egin zuen han eta handik irtetea Elgetara eraman zituzten, Itxortara. Han ezagutu zuen Alustizak Jose Antonio Agirre, euren bisitan joan zen batean. Baina Itxortatik ere frontierik egin gabe alde egin behar izan zuten, zerkatu egin zituzten eta. "Han Intxortatik Durangoko bonbardeoa ederki ikusi genuen guk. Guri ere egin ziguten eraso, baina abiazioekin ez, morteroekin Bergara, Angiozar aldetik". Frontea Kanpantzar, Elgeta, Itxorta, Angiozar, Unbe inguruan zegoen. Baina frankistek Kanpantzarren frotea txikitu zuten eta handik sartu eta zerkatu egin zituzten

MINISTERIO DEL EJERCITO
COMISION CENTRAL DE EXAMEN DE PENAS

Núm. 35123

CONDENADO *Manuel Alustiza*

Fecha y lugar de la sentencia primitiva *11. Enero 39 Saragosa*

Comisión Provincial remitente *Saragosa*

1.— Fecha de recibo en la Comisión Central.....

2.— id. de elevación de propuesta al Ministerio.....

3.— id. de recibo de la resolución ministerial.....

4.— id. de remisión de certificado a.....

5.— id. de recepción de acuse de recibo.....

6.— id. de resolución de ejecución total de la pena definitiva.....

Pena primitiva *6 años y 1 dia*

id. conmutada *6 años 1 dia*

INCIDENCIAS

«Laredon harrapatu eta preso hartu ninduten eta Castro Urdialesera eraman. Italianoek harrapatu gintuzten. Italianoak nahiko nobleak, onak ziren»

«Burni artetik atera eta Sevillako ospitale militarra eraman ninduten. Belarri bat zintzilik geratu zitzaidan eta sei egunetan egon behar izan nuen ospitalean»

COMISION PROVINCIAL DE EXAMEN DE PENAS, DE ZARAGOZA

MARCO ALUSTIZA ARACANA natural de Cereñin de 28 años de edad, de estado soltero de profesión carpintero fué condenado por sentencia del Consejo de Guerra celebrado en la Plaza de Zaragoza el día 11 de Enero de 1939 a la pena de SEIS AÑOS Y UN DIA DE PRISION MENOR con las accesorias de suspensión de todo cargo y del derecho de sufragio como autor de un delito de auxilio a la rebelión definido en el art. 240 del Código de Justicia Militar. Empezó a cumplir la pena el 7 de Octubre de 1939 y actualmente se encuentra en no consta Hechos probados en la sentencia:

Que Jesus Martinez Eujedo afiliado a la C. N. T. al partido Nacionalista Vasco y Guardia de Orden Publico durante el dominio rojo y Marcos Alustiza Aracana afiliado al Partido Nacionalista Vasco ambos prisioneros de guerra y trabajadores en el Batallón de Trabajadores nº 69 en el mes de Octubre del 38 hallandose destacados en la Piedad de Valverde sostenian conversaciones con sus compañeros en las que en las que ademas de manifestar su intención de pasarse en cuanto pudiesen al enemigo, decian entre otras cosas que "Franco debia de estar colgado del cuello" "Que la guerra la ganarian los rojos, pues si supieran que no la habian de ganar, ya se hubieran tirado de cabeza por el puente". "Que cuando en el Cine proyectaban la imagen del Caudillo en la Pantalla, la gente murmuraba de él, y le insultaba", y otras frases por el estilo, con las que incitaban a la rebelión y se insultaba a la España Nacional y al Caudillo. Y en una ocasion en que pasaba el Capitan del Batallón dijeron disfruta ahora que te vale, que pronto se te va acabar, porque te vamos a destrozar la tripa con una ametralladora-

Esta Comisión atendiendo a la Instrucción 2.ª de la O. C. de 25 de Enero último (D. O. número 21) y a lo dispuesto en las 8.ª y 9.ª de la misma disposición, estima que debe proponer la conformidad con la pena que el reatado viene extinguiendo y que será la de con las accesorias de citadas

como comprendido en el núm. 1 del grupo 52 de la repetida Orden Circular.

Y para que surta los oportunos efectos, formule la presente propuesta que eleva a la Superioridad, por conducto de la Autoridad Judicial de la 5.ª Región Militar.

En Zaragoza, a 7 de Septiembre de 1940

EL PRESIDENTE

EL VOCAL

EL VOCAL

errepublikarrak. "Guk horrela bata besteari tiroka ez genuen egin. Nik alde batera, suertea izango zen edo ez dakit zer, baina trintxeretan puntu batean bakarrik egon nintzen". Dena den, Itxortan frontean zegoela zauritu egin zen Alustiza. Mortero bat erori zitzaion aldemenera eta besoan min egin zion eta hazita eduki zuen debora luzez. "Oraindik ere marka hemen daukat", dio. Handik zuzenean Gernikara joan zen Saseta bataloia eta eurak iritsi eta bost egunera bonbardatu zuten Gernika, 1937ko apirilaren 26ko feria egun hartan: "Ni Gernikan mendian nengoen baserri batean bonbardeatu zutenean. Sei abioi zebiltzan bueltaka, sei joan eta beste sei etortzen ziren. Guk gotik dena ikusi genuen. Han makurtuta jarri eta teilatu gainean bezala pastasen ziren abioiak. Han ez zen abioi haien kontra ezer izan". Bi ordu eta erdiren inguruan amaitu zen Legion Condor hegazkin nazi eta italiarren bonbardaketa. "Ni segituan jaitsi nintzen Gernikara behera. Sua ikusi nuen alde guztietan. Etxe zaharrek dena azpian hartuta zeukaten. Han ezer jaso gabe zegoen eta jasotzerik ez zegoena ere asko. Gernikan Saseta bataloian sartu nintzen. Batzuk han geratu ziren laguntzen, baina nik alde egin nuen Bermeora. Halere, kuartel

modura Gernika geneukan guk, hango komentu bat".

Preso hartu eta lan gogorretara

15 bat egun Gernikan egin eta mendira joan ziren atzera Saseta bataloikoak. Ordurako hildako asko zegoen euren artean. Mendian ia lubakiak (trintxerak) eginda zeuden eta han geratu ziren. Alustiza metrailetadun lagun batekin zegoen lubakian; oroitzapen mikatzez hala dio: "Behetik tiroak etortzen ziren eta trintxera ere ondo egindakoa ez zen eta aldameneko gizonari tiroa eman eta han joan zen pinuaren puntatik aurrera". Ordurako frankistek Euskal Herri gehiena hartuta zeukaten, burdinezko gerrikoa deituriko frontea

«Madrilen gose
izugarria zegoen.
Batek platano bat
jan zuen eta azala
lurrera bota; beste
batek berriz, atzetik
azala hartu eta jan
egin zuen»

bakarrik geratzen zen Bilbo defendatzen. Artxandan ezer egiterik ez zegoela ikusi eta Santander aldera erretiratu ziren Alustiza eta. Han ere zereginik ez ordea, eta berriz ere Balmasedara etorri ziren. Bertan atzera egiteko agindua jaso zuten eta Lamedora joan ziren. Italiarrek preso hartu zuten han. "Laredon harrapatu eta preso hartu ninduten eta Castro Urdialesera eraman. Italianoek harrapatu gintuzten. Italianoak nahiko nobleak, onak ziren. Haiek ez zeukaten grina handirik gure kontra. 'Italiani, italiani, cigarrito, cigarrito' eta zigarroa ematen zidaten, haiek ez dakit presoak edo zer ziren eurak ere. Jende dezente hartu zuten preso han". Lehenbizi Castro Urdialesen azterketa egin zieten. Batzuk bertan geratu ziren, eurek behar zuten laerako egokiak zirelako. Besteak, berriz, Aranda de Duerora eraman zituzten eta handik Miranda de Ebrora batallón de trabajadoresetan sartzeko. Baina Mirandara trenean zihoazela istripua izan zuten: bi trenek elkar jo zuten. Hildako asko izan ziren istripuan. "Ni burni artetik atera eta Sevillako ospitale militarrean eraman ninduten. Belarri bat zintzilik geratu zitzaidan eta 6 egunetan egon behar izan nuen ospitalean". Apur bat osatutakoan Granadako Padulara eraman zuten



OIHARTE

Nekazalturismoa eta erretegia


20214 ZERAIN
Maria Luisa Urrestarazu
Tel: 680 171 291

bakar bakarrik, kamino egiten lanean jartzeko. "Illarrea eta belarra besterik ez zen lekuan aritu ginen bide egiten".

Andaluziatik Euskal Herrira ekarri zuten atzera Alustiza; Bilbora, hain zuzen ere. Gerra bukatzeko zegoen artean eta Bilboko unibertsitatean aritu zen Alustiza beste lau bat hilabetez: "Han ez nuen ezer egiten, egon bakarrik". Handik Teruela, Mora de Rubielosa eraman zuten. Han tren geltoki batean egon zen; inguruan ezer ez zuen tren geltoki batean, herritik bost kilometrora baitzegoen tren geltoki hura. "Han ez zegoen ezer, etxerik ere ez. Sekulako eguraldi txarra egin zigun eta han ez zegoen egoterik ere. Kartoi batzuekin eta moldatzen ginen han hotzak ez garbitzeko. Han ere ez genuen lanik egin. Zubi bat zegoen erorita eta zubi hura egiteko ideian eraman gintuzten hara, hori uste dut nik, behintzat".

Mora de Rubielosen zeuden tokira Guardia Zibila joan zitzairen Alustizari eta. Hartu eta Zaragozana eraman zituzten. Alustizaren esanetan, cuencarren bat zegoen han eurekin eta hark zerbait esan zien Guardia Zibilei eta horregatik eraman zituzten handik. "Teruelen nirekin zeuden beste beste lagunak ez nituen gehiago ikusi. Zaragozan etxe zar batean ez argi, ez ur, sartu ninduten". Handik laster atera zuten Alustiza eta norekin topo egingo eta Patxi Antsostegikoarekin. Hura Francoren alde aritua zen gerran eta zaurituta zegoenez ordurako inutilidadea

«Bilbon baserri
batean geundela
aritu nintzaion karta
bat eskribitzen
Maria nire
andregaiari. Nik ez
nekien non zegoen,
Frantziara joan zela
bai, baina besterik
ez, eta iritsi egin
zitzaion karta»



hartuta zegoen. "Berarekin pixkat batean hizketan aritu nintzen eta eskola antzeko batean sartu ninduten".

Sei urteko kartzela zigorra

Zaragozan ere bastante denbora egin zuen Alustizak, epaiketa egin eta 1938ko urriaren 7an Alcalá de Henareseko (Madril) kartzelan sartu zuten arte. 12 urteko kartzela zigorra jarri zioten lehenengo eta gero 6ra jaitsi. Zaragozako Probintziak presoek zigorrak argitzeko zuen agiriak dioenez, Franco iraindu eta "gorrien" alde egoteagatik sartu zuten preso Alustiza. Epaiak, besteak beste, ondorengo hauek esan izana egotzi zion Alustizari: "Francok lepotik zintzilikatuta egon beharko lukeela; gerra gorriek irabaziko zutela, hori horrela izango zela jakin izan ez balute zubitik behera botako baitziratekeen guztiak; eta zinean Francoren irudia ematen zutenean jendea harengatik gaizki esaka hasten zela". Horregatik guztiagatik bi urte eta erdi inguru egin zituen kartzelan Alustizak. "Kartzelatik ez zidaten uzten kartarik idazten. Eruen bistan zegoen tarjeta bat datzi behar izaten zen, baina ez dakit bidaltzen zituzten edo ez. Madril inguruko presoren bati edo besteri bisitaren bat edo beste egiten zioten, nik ez nuen izan bisitarik. Sagastibilen ez zeukaten arrastorik ere ni non nenbilen. Azpeitiarrak eta asko zeuden han. Baina nik hasierako Saseta bataloiko inor ez nuen bilatu. Denok sakabanatuta geunden".

Franco jeneralak gerra bukatu zela adierazi zuen 1939ko apirilaren 1ean. Alustiza kartzelan zegoen artean, eta halaxe egon zen beste bi urtez ere, 1941eko apirilaren 22an utzi baitzuten libre. Agiri bat eman zioten

kartzelan, etxerako bidean erabili ahal izateko. Madrilgo San Martin geltokian jaitsi zen lehenik Alustiza eta kartzelan egin zuen lagun baten etxera joan zen: "Han ere laguna banuen kartzelan egina. Bere helbidea eman zidan, kartzelatik irtetzen nintzenean joateko. Puerta del Sol inguruan zegoen etxea; hura bilatu eta gau bat han igaro nuen. Gero hurrengo goizean jaiki, trena hartu eta Zaragozana joan nintzen. Kartzelan emandako agiriarekin trena libre zen. Garai hartan Madrilén gosea zegoen izugarria. Han ikusi nuen zera: batek platanoa jan zuen eta azala lurrera bota, beste batek atzetik azala hartu eta jan".

Zaragozatik Beasaina lehenengo eta Zeraina etorri zen gero. Sei urte zeramatzan Zeraina etorri gabe Alustizak: "Nik ez nekien ezer Zeraini buruz". Ez zekien ezer Zeraini buruz; ez zekien ezer bere sendikoi buruz; ez zekien ezer bere andregaiari buruz... "Joxe Mari anaia ni baino lehen eotri zen. Ordurako ia bi urte baziren hura libratu zela. Mariari, berriz, Bilbon baserri batean geundela aritu nintzaion karta bat eskribitzen. Nik ez nekien non zegoen, Frantziara joan zela bai, baina besterik ez, eta iritsi egin zitzaion karta". Zerainen ia urtebete egin zuen etxean Alustizak. Gero Martin igeltserorekin hasi zen lanean lehenengo eta gero Indarrera joan zen. Zeraina etorri eta bi urte eta erdira Mariarekin ezkondu eta Seguran jarri zen bizitzen.

Batzutan irriz eta besteetan saminez kontatu ditu Alustizak 1936 eta 1941 arteko kontuak. Gerrako oroitzapenak saminak dira, ordeak; gerra beti baita gogorra: "Gerran momentu guztiak igual samarrak izaten dira, denak gogorrak".

ANDRAMARI JAIAK

Urtero bezala Andramari jaiak giro ederrean ospatu genituen.

Bezperan haurrak, jolasean ibili ziren eta lasterketak ere egin zituzten; Mutiloatik gora egindako bizikleta igoera, adibidez. Arratsaldean bando, etxafuero eta kanpai bueltakoekin hasiera eman ondoren txekorra janez eta sagardoa dastatuz jende ugari bildu zen goizalderarte.

Andramari egunez urteroko ekintzez gain, 45 urtetik gorakoek bigarren dantza txapelketa jokatu zen arratsaldean. Eguraldiak plazan egiteko modua kendu bazuen ere, pilotalekuan dantza-giro ederra egon zen. Iluntzean, astoa eta karroa hartu, trikitilariak gainean jarri eta gazteak herrian ibili ziren triki-poteoan. Ondoren, denak Oihartera joan ziren afaltzera.



Plaza-bete jende hurbildu zen txekorra jan eta sagardoa edatera.



Triki-poteoa asto-triki-poteo bihurtu zen.



Mutiloatik gora egin zen txirrindu igoera.

San Roke eguna urteroko ekintzez bete zen, baina eguerdian herri-kirol saio ederra egin zen. Hasteko herriko gazteek erreleboka saioa egin zuten. Ondoren herriko aizkolari gazte eta beterranoak nor baino nor aritu ziren. Ikuskizun bikaina eman zuten herriko zaindariaren egunean. Eta urterokoa izan zen eguraldia ere. Duda-mudan egon ondoren, plazan afaltzen hastearekin bat euri zaparrada hasi zen eta plazako afariak zapuztu zituen; ez ordea, jendearen festa-giroa. Hiru eguneko jaien ondoren, atsedena hartzeko egunak iritsi ziren eta jendearen ahotan, festa onak izan zirela entzun zen.



Aizkolariak gogor aritu ziren, baita Otatza beterranoa era.

KULTUR ASTEA

Irailaren 11etik 17ra egin zen kultur-astea. Larunbatean haurrentzat hainbat ekintza izan ondoren, gauean herriko plazan afaria egin zen bertsolari eta trikitilariekin, Liztormendi elkartearen alde. Igandean hirugarren adinekoen txanda izan zen, eguerdian Meza Nagusia eta ondoren bazkaria bertsolari eta guzti.

Astean zehar hainbat gai jorratuz hitzaldiak izan ziren. Legazpiko Burdinola elkarteko kideak eta Mikel Zalbide aritu ziren besteen artean.



Legazpiko Burdinola elkartekoak Zeraingo haizeolei buruz aritu ziren.

XII. AZOKA EKOLOGIKOA

Jende ugari bildu zen urte bat gehiagoz ere XII. azoka ekologikora. Salmenta postuak produktuz beteta egon ziren eta tailerrek jendea gozarazi zuten; batik bat gaztentxoek. Urteroko moduan sagar muztioak jendearen ahoa goxatu zuen. Horrez gain, nobedadea erakusketek jarri zuten. Koltxoi-jotzen eta lixiba egiten ikusi ahal izan ziren herriko hainbat emakume.

Arratsaldean ez zen azoka-posturik egon eta gainera eguraldiak okerrera egin zuen. Baina eliz-atariko babesean, Xapreren trikiti soinuekin erromeri-giro ederra sortu zen. Ez zen goizean adina jende hurbildu, baina benetan festa giro aparta sortu zen eliz-atarian.



Azokan antigual erako arropak ere ikusi ziren.



Barazki eta fruta aukera paregabea urtero bezala.



Koltxoi-jotzea izan zen iazko nobedadea



Taloa egiten oraindik ere zaharrenak dira nagusi eta maisu.



Talde handia Aizpen ere ibili zen.

GAZTAINA JATEA

Udazkenarekin batera etorri ohi da beste gauza batzuen artean gaztainak bildu eta jateko garaia. Basarte guraso elkarteak antolatuta urrian egin zen Zerainen gaztaina eta talo jatea. Eguraldiak asko lagundu ez bazuen ere jende ugari bildu zen eliz atarian, bertan erretako gaztainak eta haur eta gurasoek egindako taloak jatera. Kanpoko hotzari aurre egiteko barrua berotzea onena.

GABONAK

Abenduaren 24an urtero bezala etxez etxe eskean ibili ginen, eta urtero bezala, erantzuna ezin hobeia izan zen. Etxe guztietan irripar batekin hartzeaz gain, dirutza ikaragarria eman zuten.

Bi talde ibili ginen eskean: Goizean nahiz arratsaldean, herritar dezentez osatutako taldetxoak ibili ginen Zerain dena pasa arte. Herri



Haur txikienak ere irten ziren gurasoekin.



Juan Luis eta Txikito zegamarrek nagusi izan ziren Musean.



Toñok eta Luisek irabazi zuten Tutean.

eskolako haurrak, guraso eta irakasleekin goizez bakarrik ibili ziren. Herri kasko ingurunean aritu ziren etxeak alaitzen. Momentu batzuetan bi taldeok bat ere egin genuen eta elkarrekin kantatu genituen gabon kantak.

Diru asko bildu zuten bi taldeek eta ekintza ezberdinetako erabili dute urtean zehar.

TUTE ETA MUS TXAPELKETA

Liztormendi elkarteak antolatuta tute eta mus txapelketak jokatu ziren neguan. Bi lehiaketetan jende mordoak parte hartu zuen. Musekoan txapela Zegamara joan zen. Tutekoan, ordea, herriko Luisek eta Toñok irabazi zuten.



Taldetxo polita elkartu zen Santa-eskean.

SANTAESKEA

Ohitura zaharrari jarraituz, herritar talde bat ibili ginen kantuan eta eskean. Eta urtero bezala, harrera ezin hobea egin ziguten etxe guztietan. Guztira 1467,76 euro bildu ziren, urtero ohi den bezala, beharrea daudenei bidali zitzaizen dirua. Kasu honetan, Baionako GURE IRRATIA irrati erre-berriari bidali zitzaion. Ez genuen kopla orain bildu dituzten herriko kopla zaharririk kantatu. Baina ondo bidean, datorren urtean bai.




Hurrengo urtean Zeraingo kopla zaharrak berreskuratzeko asmoa dute.

CALDAS HARGINDEGIA

Mota guztietako hargin lanak

ANTONIO CASTRO



Elizalde Etxea

Tel.:943800106 Mug.:652776353

20215 ZEGAMA



Yoga ikastaroan, erlaxatzeaz gain, ia-ia lo ere hartu zuten batzuek

ENDIKA ALUSTIZA MEMORIALA

Otsailaren 25ean, igandea, Zeraingo bolatokian Endika Alustiza zenaren oroimenezko XIV. Bola-txapelketa jokatu zen

YOGA IKASTAROA

Udaberrian yoga ikastaroa antolatu zuten guraso elkartekoek. Yogaren teknikak guraso, haur eta gainerako zenbait herritarrek elkarrekin ikasi zituzten. Guztira 25 lagun inguruk gozatu ahal izan zuten Yogaren erlaxazio teknikez.

BOST HERRIEN ARTEKO PILOTA TXAPELKETA

Zerain, Segura, Mutiloa eta Idiazabalgo haur eta gaztetxoek



Herriko pilotari gazteak ondo dabiltza.

artean jokatzen den "Bost herrien arteko pilota txapelketaren" seigarren edizioan ere zeraindarrak fin aritu ziren. Mutiloan jokatu zen finalean bi herritar izan genituen. Mendiko Eneko Arzelusek aise menderatu zuen aurkaria. Mikel Oriak, berriz, galdu egin zuen binaka, zegamaren aurka.

SAN JOAN SUA

Euskal Herrian aspaldiko usadioa da San Joan bezperako gau magikoa modu berezian ospatzea. Urteko gaurik motzena omen denari behar bezalako hasiera emateko, Zerainen ere ospakizun berezia izan zen ekainaren 23an, larunbata.

Iluntzeko 8:30etan, elizako kanpai bueltakoen doinuekin hasiera eman



ARANBURU HARATEGIA

ZURE ZERBITZURA

Kale Nagusia, 34 Tel.: 943 80 10 14 **SEGURA**

zitziaion. Herriko haur eta gaztetxoak dantza egin zuten suaren inguruan eta koruak abestu zuen ondoren. Amaitzeko mahaiaren bueltan elkartu ginen zeraindar denok, ez baitago euskaldunon artean, jan-edanik gabeko tradizioirik.

MUTILOAKO SAGARDO DASTAKETARA JAITSIERA

Orain dela hiru urte hasitako ohiturari jarraituz, aurten ere Mutiloako sagardo probaketara jeitsiera egin zen. Ekainaren 29an iluntzeko 7etan elkartu ginen herriko plazan eta txistularien eta herriko trikitilari gazteen doinuak lagun hartuta, Mutiloara jaitsi ginen 70 bat lagun. Adin guztietako jendea elkarrekin festa giroan joan ginen.



San Joan bezperan sua, dantzak, kantua eta jan-edana nagusi



Txistulari eta trikitilariak espedizio-buru.



70 herritar baino gehiago jaitsi ziren Mutiloara.

ARDO KATA

Aurten lehenengo aldiz, ardo-kata edo dastatzea antolatu zuten Liztormendi elkarteak, uztailearen 4an. Hainbat bazkide nahiz herritar, Errioxako ardo-zale batekin aritu ziren mahatsak emandako edari goxoa dastatzen.

TOBERA MUSIKA ESKOLAK 20 URTE

Aurten bete ditu Zegama, Segura eta Zeraingo Tobera musika eskolak 20 urte. Hori ospatzeko hainbat ekitaldi egin dituzte urte guztian zehar. Eta Zeraina ere iritsi dira horietako batzuk. Zorionak Tobera!

BAITA ERE

Ekintza hauez guztiez gain, orain arte bezala, joan den urte honetan ere beste hainbat ekintza egin dira:



Ardoa probatuz hasi ziren, baina edanez amaitu zuten.

* Ingelesko kurtsoak
* Adinduek gimnasia egin dute herriko pilotalekuan.
* Aste Santuan eta udako oporraldietan haurrentzat aisialdirako

jolasak eta tailerrak egin dira.
* Irailaren 2an eta 4an Arantzazuko erronesaldia egin zen.
* Adinduen urteroko eskurtsioa uztailean Gernikara egin zen.



PLAZA INGURUA

Irigarritasuna hobetzeko lanetan, hainbat obra egin dira plaza aldean aurtengo urtean. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailaren eta EREINen laguntzaz, Plazara doan bidean obrak egin dira. Itxura dotorea hartzeaz gain, mugikortasun arazoak dituztenentzat, asko erraztu da ibiltzeko aukera. Horrekin batera, Maixune atzeko eskailerak ere berritu dira.

Iaz Mandio dendako sarreran eta Maixune ondoan egin ziren irigarritasunaren obren bigarren zatia izan da aurtengo egindakoa. Errepidean oinezkoen lehentasuna eman zaie, eta espaloioak kendu dira.

KULTUR ETXEKO TEILATUA

Erreteila egin da Kultur Etxeko teilatuan. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura sailaren eta EREINEN subentzioei esker, premia handia zuen teilatu-berritzea egin da, Bikario etxean.



JAIOZAK



Irati Zabaleta Imaz 2006-03-01



Ortzi Harreguy Urbistondo 2006-07-21



Unai Eguren Retolaza 2006-08-25



Uxue S. de Egilaz Junquera 2006-08-30



Eneritz Iztueta Etxeberria 2006-09-05

HERIOTZAK

Bixenta Oria Telleria	2006-01-05
Juana Lopetegi Artola	2006-02-08
Maribi Dorronsoro Otamendi	2006-06-10
Martin Etxaluze Zubeldia	2006-07-24
Josefa Berasategi Ayerbe	2006-07-30
Florenzia Alustiza Aroztegi	2006-08-29
Aitor Arrondo Anduaga	2006-11-19

BIZTANLEAK

2006ko urtean zehar zentsuan izandako gorabeheren ondoren urte bukaeran Zerainek 250 biztanle ditu. Urtean zehar 14 alta izan dira hauetatik 5 jaiotza, eta 7 baja, hauetatik 7 heriotzak

EZKONTZAK

Garikoitz Iparragirre Izagirre eta Josune Maiza Aranburu 2006-5-27

URREZKO EZTEIAK

Jose Mari Intxausti eta Ines Apaolaza 1956-10-10
2006-10-10

2006-2007 IKASTURTEKO HERRI-ESKOLAKO HAURRAK

Haitz Balerdi Aierbe
Irati Saez de Egilaz Junkera
Izar Foroni Ruiz de Larrinaga
Maialen Alustiza Aseginolaza
Josu Lazkanoiturburu Alustiza
Aroa saez de Egilaz Junkera
Irenia Apaolaza Kintela
Adur Balerdi Aierbe
Haizea Foroni Ruiz de Larrinaga
Haitz Iturrioz Sodupe



**2006-2007 IKASTURTEKO AURRESKOLAKO
HAURRAK**

Aizpea Elortza Elorza
Eki Iturrioz Sodupe
Xiker Zabala Arana (Segura)
Aines Txabarria Ormazabal (Segura)
Eneritz Iztueta Etxeberria
Unai Eguren Retolaza
Maddi Berasategi Hernandez (Segura)
Ander Otegi Aristimuño (Zegama)
Xanet Ulazia Erauskin (Segura)
Lander Carrete Vigueret (Zegama)

HAUTESKUNDEAK

2007ko maiatzaren 27an udal eta batzar nagusietako hauteskundeak izan ziren, Zerain izandako emaitzak hauek dira

Batzar nagusietako hauteskundeak

Zentsatutako hautesleak	213
Boto emaileak	166
Boto zuriak	3
Boto baliogabetuak	70
EAJ/PNV	68
EA	13
EB-B/A	11

Udal hauteskundeak

Boto emaileak	170
Boto zuriak	3
Boto baliogabeak	19

PP	2
Jose Manuel Oriak Alustiza	129
Andoni Alustiza Etxaluze	118
Aitziber Makazaga Alustiza	107
Haritz Eguren Urrestarazu	107
M.Jexux Mendizabal Elizegi	103

KALITATE ZIURTAGIRIA

Eusko Jaurlaritzako Turismo sailak kalitatea bultzatzeko asmoarekin martxan jarri duen proiektu berri batean Goierri bailara aukeratu zuen proiektu - pilotu gisa. Horretarako Goiturren bidez ikastaro bat egin ondoren, otsailaren 22an Beasaingo Igartza Jauregian ospatu zen Goierriko Turismo galan, Goierriko turismo arloko 27 enpresek jaso zituzten ziurtagiri bana, hauetatik 9 Zeraingoak zirelarik: Turismo bulegoa, museoa, aterpea, Aldabe kooperatiba, Oiharte nekazalturismoa eta sagardotegia, Tellerine, Ostatu eta Otatza.



OTATZA SAGAR DOTE CIA
ZERAIN GIPUZKOA
TEL. 943 80 17 57

KORRIKA 15 ZERAINEN

Martxoaren 24ko goizaldean Zeraindik pasa zen AEK-k antolatzen duen Korrikaren 15. edizioa. Larunbat goizeko 5:30ak inguru Mutiloatik gora bide berritik etorri ziren korrikalariak ondoren Segura aldera joateko. Herriko hainbat elkarte eta zerbitzuek erosi zituzten kilometroak, eta baita testigua eraman ere, korrika egitera jende ugari bildu zen, baita ondoren soziedadean gosaltzea ere.



BOLA TXAPELDUNAK

2007ko Ekainaren 3an, Lasarten jokatu zen Gipuzkoako Bola txapelketan, emakumeen mailan Aitziber Makazagak irabazi zuen txapela eta umeen mailan Unsulategiko Itoiz Alustizak.



MIKEL ZALBIDE EUSKALTZAIN

Mikel Zalbidek Euskaltzaindiako sarrera hitzaldia ekainaren 2an egin zuen Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitzan. Hitzaldi honen gaia "Agustin Iturriaga. Pedagogoa Batzar Nagusietan" izan zen. Zeraindik ere taldetxo bat han izan zen egun horretan.



LAKIOLA

Lanak eta Zerbitzuak



Hiribarren 6, 3º
20210 LAZKAO

Tel. / Fax: 943 16 12 02
Mobila: 639 63 86 06
617 39 40 50
lakiolanak@euskalnet.net

Santa Ageda Zerainen

Otsailaren 4ean Santa Ageda bezperan, aurtengoan ere ohiturari jarraituz herritar talde bat betiko koplak kantatuz ibili zen etxez etxe jendearen borondate ona eskertuz.

1991n berreskuratu zen Santa Ageda bezperan kantuan ibiltzeko ohitura hau Zerainen. Herriko nagusienek diotenez beraiek haur edo oso gazte zirela herrian 6-8 gizon, zuriz jantzita, ibiltzen omen ziren kantuz etxez etxe. Garai haietan arrautza, txorixo, edo antzeko zerbait ematen zitzaaien, eta bukaeran otordu goxoa egiten omen zuten. Herrian zeraindarrak ibiltzen omen ziren, Aizpe auzoan bertakoak, eta Barbari aldean aldiz zegamarrak ibiltzen omen ziren. Gerra garaiek edo galdu zuten itxuraz ohitura hau.

Kantu eta koplak politikak kantatuz ibiltzen ziren gehienetan, hala ere esker ona beharrean, hain politikak ez zirenak ere gogoratzen dira batzuk.

Dena den ea denon artean koplak hauek berreskuratzen ditugun eta datorren urtean lehengo bertso zaharrak kantatzen ditugun.



91n irten zen taldea kultur etxeko atarian.


Monika Muñoari, Juanita Alustizari, Gregori Telleriari eta Juli Telleriari bildu dizkiegu gogoan dituzten koplak batzuk. Horietako batzuk jarraian dituzue. Norbaitek gehiago baldin badakizki, gustura hartuko ganituzke.

Alkate jaunaz egondu ginan
atzoko arratsaldean
libertatea geurea degu
ibiltzeko pakean;
ez bagebiltza pakean
dala geuretzat kaltean
Alkate jaunak sartuko gaitu
ziega ilun batean.

Oles ta oles etxekotxuak
nik jotzen ditut ateak.
Oles ta oles etxekotxuak
nik jotzen ditut ateak
irekitzeko jende noblea.

Santa honen izenean
gatoz bide zuzenean,
poztu zaitezte
ate ondora
kantari gatozeanean.

Elena Mendizabal



**GURE ESKERRIK
BEROENA
OA KULTUR
ELKARTEAREN
IZENEAN**

**LIZTORMENDI
ELKARTEARI**

Antxaputxuko “rotonda”

Dagoeneko urtebete egin du Antxaputxuko “rotonda”, biribilgune, edo iaz urtekarian Mikel Zalbidek proposatu zuenez, eraztunak. Urtekariko arduradunek, horri buruz lerro batzuk idazteko eskatu zidaten, eta nahiz eta ofizio honetan ez naizen batere iaioa, ideia nondik nora sortu eta garatu genuen kontatzen ahaleginduko naiz.

Zeraindik Mutiloara doan errepidea egiten ari ziren heinean, bagenekien Antxaputxun rotonda zihoala. Gipuzkoako Foru Aldundia prest zegoen diseinua eta gainontzeko lanak egiteko (belarra erein, landaketak egin, etab.). Guk ordea, zerbait berezia nahi genuen: beste rotondetatik deberdina izango zena, herriari nortasuna emango ziona eta herriaren kultura eta ondarearekin zerikusia izango zuena.

Beraz, Jakoba Errekondorekin bildu eta buruari buelta batzuk ematen hasi ginen, diseinua guk egiteko. Dakizuen bezala, Zeraingo Aizpeko meategiak gure herriaren zati historiko eta turistiko garrantzitsuak dira (aurkitutako idatzi zaharrenak 1512. urtekoak dira, Errege Katolikoek Aretxabaletako Otalora familiari ustiapen baimena ematen dienak). Aizpeko meategi horiekin lotura izango zuen zerbait egitea pentsatu genuen.

Errepidea inauguratzeko egunak gerturatzen ari zirenez, argizatzeak, lur-lanak eta belar-ereiteak Diputazioaren esku utzi genituen. Gainontzeko lanak negu parterako uztea erabaki genuen, arbolak landatzeko garai hobea delako eta gu ere lan aldetik lasaiago ibiliko ginelako.

Behin negua pasata, paperean genituen “bozetoei” bizia ematen hasi ginen. Lehenengo, galeria sarrera itxura izango zuena egin genuen trabiesa batzuekin; eta gero errailak jarri genituen. Jakin ezazue, errail hauek orijinalak direla; bai alajaina! Hil berri zaigun Telleriko Juanek eta bere anaia Joxek txukun jasota



zituzten etxean, beren gaztetako lanbide izan zenaren testigu.

Errailak trabiesekin josteko, Azpeitiko trenaren museotik “roskamaderak” ekarri genituen. Behin errailak jositakoan, Aizpitatik, burdin minerala ekarri genuen trenbidea osatzeko. Azkenik Ameztetako Konstanek udalari beste zenbait gauzen artean utzitako bagonetari txukundu bat eman, eta errailen gainean jarri genuen mineralez beteta.

Landaketak egiteko orduan, galeria inguruan, baso itxura eman nahi zitzaion eta horretarako hosto erorkor eta iraunkorreko bertako espezie batzuekin jokatu genuen. Hala nola: pinu silbestrea, urkia, hagina, ezpela, elorri-txuria, elorri-beltza, astigarra.

Azkenik ureztatze sistema jarri genuen. Orain nahi izanez gero eskuz jartzen da martxan, edo programatuz gero, bakarrik ureztatzen du agindutako orduetan.

Jakingo duzueenez rotonda honek eginkizun desberdinak hartu ditu dagoeneko: bidegurutzea kentzeaz gain, orain ezkontzetako argazkiak ateratzera ere etortzen omen dira; eta herriko neska-mutilak gordeleku gisa

erabiltzen dute galeria. Baina eginkizun anekdotiko horiez gain, kanpotik etortzen den jendeak ere zerbait bitxia ikusten du eta Zeraingo herriaren historiaren zati batekin zerikusia duela konturatzen da.

Zerainek ahalegin berezia egin du Aizpeko meategiak munduari erakusgai jartzeko, nahiz eta oraindik ere, asko dagoen egiteko. Baina ziur nago, gure ondarea eta kultura zaintzen dakigun bezala jakinda, jendeari erakusteko gai garela eta izango garela, etorkizunari begiratzen diogulako, iragana ahaztu gabe. Zuetako askok seguruenik oraindik ez dituzue Aizpeko meategiak gertutik ezagutuko. Baduzue aitzakia polita, Aizpitara joan eta bertantxe daukazue, mea inguruetatik barna dihoan markatutako ibilbide eder bat (urtekari honetan bertan azaldua). Bertako historiari buruz eta naturari buruz jantziko zaituzten panelez osatuta dago eta ordu pare batean egiteko modukoa da. Rotonda Aizpeko meategien erakusgarri txiki bat baino ez da. Beraz, animatu Aizpeara bertara joan eta gure meategiak ezagutzera.

Xabier Dorronsoro

Zeraingo toponimia-mapa

Dagoeneko herri gutxi izango dira mapa toponimikoa egin gabe dutenak. Hauetako bat da Zerain, baina aurrean argitaratuko da.

Aspalditxoan zebilen Joxe Mari Etxaluze herriko leku desberdinen izenak biltzeko lanean, eta lan hau dena jendeari zabaltzeko eran jartzeko mapa toponimikoa egitea bide egokia zela pentsatuz herrian lan talde bat sortu zen 2006-ko udaran.


Bildutako izenen artean leku izenak, iturriak, baserriak, bilera lekuak, pozaderak, karobiak, etab. daude. Izen guzti hauek udalerrri osoa agertzen den mapa batetan kokatu dira, eta lan honetan lan taldeaz gain herriko beste hainbat lagunek parte hartu dute, bakoitzak bere inguruko izenen berri emanaz. Era honetan lehen bilduta zeuden izenez gain beste hainbat izen berri bildu ahal izan da.

Lan honetan 564 leku izen, 121 etxe, 72 desagertutako iturri, 30 iturri, 31 karobi, 24 pozadera, 22 bolaleku, 16 eroritako etxe, 16 lixiba



Aratz-Aizkorriko paraje ederrak merezi zuen izendapena.





Zeraingo lurren zati bat ere harrapatzen du parke naturalak.

leku, 11 bilera leku, 8 erreka, 3 tumulu, eta 2 hilarriren izenak bildu eta mapan jarri dira, guztira 920 izen.

Hauek denak mapan agertzeko gehiegi zirenez, desagertutako iturriak ez dira mapan sartu, eta leku izenen artean ere aukeraketa bat egin da. Baserri askoren inguruan daude etxaburua, etxe azpia, goiko soroa,

eta antzeko izenak, eta era honetakoak mapan ez agertzea eta garrantzi gehiagoko toponimoak sartzea erabaki da.

Hala ere izen hauek denak bilduta geratu dira, eta gerora ere kontsultatu ahal izango dira euskarri informatikoan, bai datu base batean eta bai planoan kokatuta.


Ahal den izen gehien bildu eta bere lekuan kokatzen lan handia egin den arren, egongo dira falta diren izenak, edo oker daudenak. Aurrerantzean izen gehiago sartzeko edo zuzenketak egiteko aukera egongo da, edozein momentutan datu basea eta ordenagailuko planoak aldatuz edo osatuz, eta maparen



ETXAIDE ERAIKUNTZAK, S.A.

Araba Etorbidea, 5.blokea
 Tel: 943 65 31 86

TOLOSA





Aldasoko pozadera. Oraindik ur ona ateratzen da.



Oamendiko trikuharria edo tumulua.



Antsostegiko iturria.



Goaittako bilera lekua Barbarihaitzen.



Txoritegiko tumulua.



Aldabeko lixibalekua.



Latxeko karobia.



Zabalegiko poxadaera.



Zabalegiko hilarria.



Unsulategiko iturria.



Loatxipitan desagertutako etxearen arrastoak.



Larraondo lixibalekua.



Jauregi ondoko pozadera.



Arrolako hilarria.



Erortzen ari den Latxe etxea.

Txori eta txoriondo

Mikel Zalbide

Usoa zer den ondotxo dakigu kalekumeok: beteta dago usoz, esate baterako, Donostiako Parte Zahar ingurua. Kanarioa eta karnaba edo txolarrea ere ondo ezagunak ditugu. Bizilagun askok izan ohi du, etxepean bertan, kolore biziko edo eztarri fineko txoritxo horietakoren bat kaiolan. Enarak ere badakigu zer diren, gutxi-asko. Hortik aurrera, orde, ezer gutxi jakin ohi dugu kalekumeok txorien berri: eskola-liburuetatik, telebistako dokumentaletatik edo parke zoologikoetatik ditugu, egia esateko, txori gehienak ezagun. Txoriz inguraturik bizi gara kalean ere, baina ez dugu harremanik batere haiekin. Ahate edo zisne batzuk ugaritzen ari dira han-hemen, eta kaioak beti dira kostaldean ezagun; baina hortik aurrera ezer gutxi.

Beste era batera dira kontuak, Zerain moduko herri txikietan. Etxe aurreko arboletara noiznahi etortzen zaizkigu hemen txantxangorriak, txolarreak, zozoak eta birigarroak, urte-garai batean ez bada bestean. Sukaldeko terrazara ere bai inoiz, guk utzitako ogi-papurak jasotzera. Donostiako kale-kalean ez da horrelakorik gertatzen. Ez askotan, behintzat. Hemen, berriz, ia egunero. Naturatik pauso batera bizi gara Zerainen, eta txoriekiko harreman hori ez da hurbiltasun fisiko eta kulturalaren testiguri ahulena. Diferentzia kulturala ere bai baitago hor, tartean: txoria bizilagun du zeraindar askok, eguneroko laguna, eta lagun izate hori kulturala da neurri batean.

Txantxangorria zer lagunkoi den hemen ikasi dut, azken hiru urteotan. Etxe ondoko baratzean hasi lanean, eta aitzurretik bi metrora horra non daukadan txoritxoa, beldur handirik gabe itxuraz, nire jardunari begira. Zizareak eta bestelako janari-mokadua azaleratzen nik, itxuraz, eta bera horren zain egoten, nonbait. Ez nuen uste izango, basoko txoria hain eskura hurbildu behar zitzaidanik. Zozoak ere bai: egunero ditugu jira-bueltan. Etxe ondora etengabe hurbiltzen dira, eta hortxe izaten ditugu, askotan, gure eguneroko joan-etorrien zelatari. Gizakien eta animalien beste modu bateko bizimoldea adierazten du horrek guztiak: kalean aspalditxotik galdua dugun bizimolde

integratua. Badakit kalean ere txoriak ugaritzen hasi omen direla: hala diote euskal egunkariak eta erdal periodikoek. Ugaritzen ariko dira, konforme, baina ez ditugu hain hurbileko bizilagun: nork geure eremua daukagu hor, antza, eta bestearen berri handirik gabe bizi gara kalean.

Ezinezkoa da hori hemen, Zerainen. Eguna argitzen hasi orduko, txori-kantua pizten da ingurumen osoan. Eta kantua, jakina, natura biziaren erdi-erdira eramaten zaitu bat-batean. Harrigarria da hemengo txori-festa. Azken hilabeteen ez dut, gehienetan, despertadore behar handirik izan: txori-kantuak iratzarri nau goizean, lautatik hirutan. Aurten ez da hala izan, besteetan baino beranduxeago etorri baikara herrira, baina kukua ere entzun izan dugu inoiz, maiatz alde horretan, etxeko leihotik. Pentsa ezinezkoa genuke hori Donostian, Amarako etxe- eta auto-zurrumbiloan. Horrelakoetan antzematen da, esplikazio nekosoetara jo gabe, naturaren muga-mugan bizi izatea zer den. Asfaltoak edo zarata-hotsak naturatik isolaturik gauzka hiri ertain eta handietako kalekume gehienok. Herri txikiotan, berriz, naturak bere mendean harturik dauzka, oraingoz, asfalto eta trafiko-zarata. "Entzun" egiten da Zerainen, kaletik lehenengoz zatozelarik, gaueko isiltasuna. Eta txori-kantua izan ohi da zenbait hilabetez, ez jarduera industrial edo trafiko zalapartatsua, egunari hasiera ematen diona.

Ez gaitezen orde itsutu. Herri txikietan ere den-dena ez da txori-kantu ederra eta bakezko isiltasuna. Negu-alde gordinean, Jauregi zaharreko ontzek badakite beren oihua egiten: izaten da tartean, oihu horrek eraginik beldurrez esnatzen denik. Ez da giro izaten, zenbait astez, ontzen jardun horrekin. Horrek ere naturarekin bat egitera eramaten gaitu, jakina, baina beti ez da atsegingarri gertatzen. Baserritarrentzat, bestalde, beldurgarria ez baina kezkarria izan ohi da, zenbaitetan, txori kontu hori: baratzetako babarrun-aleak, ilarrak, galsoroak eta gereziak galtzeko okasioa, nahi baino sarriago. Artadiak eta sagar modu batzuk ere, txori-izugarriak jarrita ere, nekez zaindu eta babestu ahal izaten dira osorik txori-banda trinkoetatik. Badakite txoriek, nahi dutenean edota horren beharrean direnean, kalte larririk ekartzen. Naturarekiko harreman idilikotik urruti gelditzen dira, halakoetan, txori-kontuak. Hori bakarrik ez: putreen eragina ez da, ganaduzaleentzat eta artzaintzat bereziki, beti mesederako izaten. Ez eta miruen edo zapelatzen ibilera ernea oilategietako txitoen lasaigarri ere.

Naturaren berezko jokabidea hil ala bizikoa da gehienetan, eta txorien jokabideak behin eta berriro gogorarazten digu egia hori: txorien kantua atsegin dugu gehienok, baina guztia ez da kantu eder eta alaitasun. Darwinen lege unibertsala indarrean dago nonahi, eta txoriak ez dira lege horren salbuespen. Sendoenaren bizi-iraupenezko garaipen-legea begien bistan dago guretzat,



"Txantxangorria zer lagunkoi den hemen ikasi dut"

katuak txorikumeen ehizean ikusten ditugunontzat. Ez guretzat bakarrik: indartsuenaren edo egokienaren garaipen-legea oso begien bistan dago, batez ere, txorientzat beraientzat. Badute txoriek, handi zein txiki, gizakion beldur izateko motiborik aski. Ehiztariak, ehiza maite dutenak eta ehiza-jaleok gehiengo zabala gara gure artean, oker ez banago. Ehiza kontu horrek ez du, jakina, txorien txio-txio eta kantu alaiekin zerikusi handirik. Beste sentiera bat, beste barne-irrika bat pizten du sarri ehizak, gizasemeon artean batez ere, udazkena hurbildu ahala. Udaberrian maitasunez ikusitako txoria oso bestelako begiz ikustera eraman ohi gaitu sentiera horrek, udazken aldean. Irrika horrek ere, dena den, txoriekiko lotura indartzen du gutako askoren baitan.

Hitz egiten ez dute jakingo txoriek, baina zeraindarron eguneroko bizimoduaren zati bat ondo asko betetzen dute. Alaitasunez batzuetan, beldurrez hurrengoan eta ehiza-irrikaz zenbaitetan. Alaitasunez, beldurrez edota irrikaz ikusi, hurbileko bizilagun ditugu txoriak, urte-garai gehienetan, Zerain bezalako herri txikietan. Bizari dimentsio osagarria eranstean diote: kalean bizi den gizakume arruntak lautatik hirutan antzematen ez duen dimentsioa. Egia da gauzak asko aldatzen ari direla herri txikietan, baina orain ere enarak askoz nabarmenago bizi ditu herriko jendeak, kalekumeak baino. Urtaroen iragarle eta oroigarri dira orain ere, herri txikiotan, txoriak. Kaleko zibilizazio unformatuak nekez eskain dezakeen bizi-sentiera aldakor, beti-bat eta berriaren adierazle. Zibilizazio modernoak berekin dituen muga-loturak hautsi eta bizimodu beteagoa osatzeko lagungarri. Eta hori guztia, doan eta debalde.

Kantari eta bertsozale iaioa izan da euskalduna, euskarazko idazle ugaria baino sarriago. Aho-literatura aberatsa ekarri digu horrek, mendeen joanean. Oso gogoan

dut, bertsolariek eta euskal kantugileek txoriei agertu izan dieten maitasuna. Txepetxari jarritako bertsoak, esate baterako, naturarekin harreman estuan bizi denak baizik nekez jar ditzake. Jarriko balitu ere, nekez sentituko lituzke gozamen osoz. Kultura modu bat da hori ere, errazegi alboratu ohi duguna. Badakit beste hainbat kantutegik ere leku aparta eskaini izan diola txori kontuari. Zenbat hizkuntzatan ote dugu, ordea, gurean adina? Har ditzagun, adibidez, ondoko adibideok:

- Basa-oilarrak kantatzen dizu, Iratiko basoan;
- Arranoak bortuetan, gora dabilta hegaletan;
- Itsasoa laño dago, Baionako barraraino, nik zu zaitut maiteago, txoriek beren umeak baino;
- Txoriñoa norat hoa, bi hegalez airean?
- Txoriñoak kaiolan, tristerik du kantatzen;
- Txorietan buruzagi, erresiñola kantari;
- Txori erresiñola, udan da kantari;
- Uso zuria, errazu, norat joaiten zira zu?;
- Aldapeko sagarraren adarraren puntan, puntaren puntan, txoria zegoen kantari;
- Kukuak kantatzen du, maiatzean kuku-kuku;
- Orhiko txoria Orhin, bakean da bizitzen;
- Behin batean Loiolan erromeria zan, hantxe ikusi zuen neskata bat plazan. Txoria baino ere arinago dantzan, huraxe bai polita, han politik bazan.

Adibideak erraz ugaritu litezke, oker ez banago. Askari dira horiek, ordea, azaldu nahi genuena erakusteko. Garbi ikusten da hor, nolanahi ere, txori kontua oso barruan eraman dugula euskaldunok: lanean eta ehizean, kantuan eta bertsoan, eskuera izan dugu maiz. Ez dakit oraindik ere halako lotura sendorik dagoen gure artean. Oraindik ere txoria, Zerain moduko herrietan, bertako bizilagun hurbila dela esango nuke. Zuek duzue hitza, nolanahi ere, gauzak horrela diren edo ez esateko.



TXIRBIL Koop.E.

EGUR PELLETA, BEROKUNTZARAKO BIOMASA SISTEMA AUTOMATIKOAK

ZERAIN
Tel. 943 800 208
txirbil@txirbil.com

EGUREZKO LEIHOAK ETA ISKILARAK

Dantza naturala

Elizabete Garmendia

Petral jarri zuen Andramari arratsaldea, eta frontoia aterpe goxo bihurtu zen iazkoan: helduen dantza txapelketa. Pasa ziren bikoteak, taju dexenterekin denak ere, eta nik berehala egin nuen apustu bikote baten alde. Ba ez, ez nuen asmatu, ez ziren haiek izan irabazleak. Saria eskuratu zuten telebistan agertzen diren txapelketetako estiloa erakutsi zutenek, eta ez, modu apalagoan mugituz, gorputzari grazia gehiago ateratzen ziotenek.

Ez daukat ahazteko Urbeltzek Euskal Herri guztiko dantzak bilduz antolatutako ikuskizun haietako batean - Zortziko izenekoan, nik uste- fandangoa eta arin-arina Arratiako estilora dantzatzeko ikusi nuen bikotea. Gizona zen tripaduna eta guzti. Mugitzen zen patxada osoz; ez dakit pausorik galtzen ote zuen, agian bai, baina gutxi axola. Bere jarrera elegante eta aldi berean pikaroak liluratzen zuen ikuslea: bikotea nola zirikatzen zuen, nola hurbildu eta urrutiratzen zitzaion, jolas eta joku betean. Dantzan gozatu egiten zuela ikusten zen, eta dantza goxatu egiten zuen berak. Halako konkistatzailearen parean, ez zen motz geratzen emakumea.

"Burua gelditu eukin bear da, garritik bera kaderetako bisagrak mogidu, eta garrie astindu, jitanak narruten dabizenean moduan". Bartolo Lasa, Zeberioako dantza maisuaren arauak. Patxi Laborda dantzariari lapurtu diot aipua, "Euskal dantzen akademizazioaren inguruan" artikulutik (Euskonews, 392.). Labordak jota jartzen du akademizazioaren adibide gisa. Alegia, lehiaketetako ereduak gailendu dela, "gutxi egin dezaketen ariketa gimnastikoa" bilakatuz, eta dantzan egingo lukeen asko ikusle soil izatera baztertuz. Ondorioz, "dantza akrobatikoa" dantza talde eta eszenatokietarako geratu dadila proposatzen du, eta plazara "dantza naturala" itzuli dadila.

Txapelketetako estilo atletiko horrek dantza karikatura bihurtzen du, nere gusturako. Zenbat eta pauso bizkorragoak, abiadura handiagoa eta kiribil gehiago, orduan eta hobe, dantza kronometroaz neurtu beharko balitz bezala. Bikotekideak elkarrekin lehian dabiltzala ematen du eta zalaparta horretan dantzariak irrifarrea izoztu egiten zaie aurpegian. "Mugimendu epileptikoak" deitzen die nere lagun batek, eta, halakoak ikustean, ez dut uste bakarria izango naizenik, Arratiakoek eragindako enkantamenduaren ordeaz, urduritasuna sentitzen. Mirestu ditzake batek arintasunagatik, baina dantzak behar duen alderdi emotiboan, zero. Susmoa daukat eredu horrek goia jo duela, eta zorionez beste tankera bateko moda sortu eta sartuko dela laster.

Eta bitarte horretan, Zeraingo txapelketak, berrogei urtetik gorakoentzat izanda, aukera ezin hobea du tranpaldok gaineko fandangoa eta arin-arinari beste aire bat



emateko. Dantzari helduak azkartasunean eta kiribiletan ez dira lehiatuko beren seme-alaba izan daitezkeenekin, baina adinak ematen duen patxada horretatik datorren elegantzian, plazerrean, pikardian eta... sentsualitatean azken batean.

Patxi Labordaren artikulutik azken entresaka, Pontxio Iurtia Leitzako musikariak 1950eko lehen urteetako estiloari buruz egindako deskripzioa jasotzeko: "... fandangoa, patxadan eramaten zen, hankak arin, gerria abailduz... Gune edo punturik garrantzitsuna ez zegoen oinetan gerriaren kulunkadan baizik, gerrien gora beherantz hori eperdiaren ezker-eskubiratzeak nabarmenagotzen zuelarik".

Ez naiz harritzen moralaren zaindariak historian zehar moskeatu izana. Eta gu, inozo halakoak, sentsualitatea Karibealdeko saltsan bakarrik balego bezala...

HUtsik

Itxaropenik gabeko amodioa

Joxe Mari Etxaluze

- | | | |
|--|---|--|
| -1-
Lengoan ni begira
ninduzun Mirentxu
hain zeunden xarmangarri
hain zinan berritsu
aho zabalik nengoen
eta erdi itsu
esnai amets eginez
nintzan zoriontsu. | -2-
Nik kabi bat sortzeko
jo zintudan begiz
agian portatu naiz
ausardi gehiegiz
nik zu bezela maite
baninduzu egiz
orduaz zoriontsu
nintzake bi aldiz. | -3-
Mundura jaio nintzan
gizon amestia
nire ametsa beti
da zu babestia
zu niretzako nonbait
pitxi garestia
maitasun hutsez zail da
gaur zu erostia. |
| -4-
Niretzako zu zera
goizeko izarra
hain da distiratsua
zure irrifarra
pentsatzen det ote dan
grazi zerutarra
ni liluratutzeko
daukazu indarra. | -5-
Kristala bezain garbi
nago nortasunez
eta gainera senda
nabil osasunez
nahiz ta urriantzean
izan ondasunez
barru dana betea
daukat maitasunez. | -6-
Nire burua beti
dabile amesti
bihotz maitemindua
bihurtzen zait ezti
zugatik sortu neizke
nik mila abesti
zuk maite baninduzu
akats eta guzti. |
| -7-
Maitasun iturria
dezu agortua
nire jardina
dago oso lehortua
ni zuretzako lore
erdi ihartua
zu nire amets egi
ezin bihurtua. | -8-
Inoiz jakiten badet
ezkontzen zerala
ni zure jabe inoiz
izan ez neikela
pentsatzen det nahigabez
urtuko naizela
piztuta sutan dagon
kandela bezala. | -9-
Luzaro gaixo nabil
ezin kendu minik
medikuak or dabiltz
antzerik ezinik
raiox ez da ikusten
nonbait maitemini
zuk senda nazakezu
hori badakit nik. |
| -10-
Nik maite zaitudala
egiten dizut zin
zuk agian ez duzu
gaur nahiko edozein
askok egin diote
oinezkoai muzin
eta gero zaldunik
eskuratu ezin. | -11-
Neskatz batek baditu
mila eginkizun
landare polit horrek
ez dakit dakizun
garbizalea izan
ez jokatu lizun
len esan dizudana
gerta ez dakizun. | -12-
Lanean lastu gabe
daukazu eskuak
ta gorputzean jantzi
soin gain setazkuak
apaingarritzat hartu
pitxi urrezkuak
salgai gelditzen dira
hor eder askuak. |
| -13-
Nire eskariari
eman ezezkoa
nik zu maitatzea da
gauza berezkoa
ni maitatzea bada
zuk ezinezkoa
egin dezun gauza da
oso bidezkoa. | -14-
Hartu dezun bidetik
ez bazoaz alai
bide xior batean
ni egongo naiz zai
nire besoetara
zu etorri lasai
nik zure zoriona
besterik ez dut nahi. | |

ITXARO-BORDA

1996ko maiatza

Arrantza II

Joxe Mari Etxaluze

Iazko lantxoan agindu nuen hurrengoan amuarraina edo amorraiari buruz hitz egingo nuela aurten eta agindua zor, horixe betetzea nator.

Atzo goizeko kontuak ez diren arren niri atzokoak iruditzen zaizkit, denbora aisa pasa den seinale, ze arraio! Eta gelditzen diren urteak halaxe pasa daitezela.

Baina hasitako kontakizunetik ez nadin urrundu eta natorren lehen bai-lehen lehengo bidera.

Amorraie berez amuarraina izango da baina nik Zerainen beti esan ohi diogun bezala esango dut nire lantxo honetan amorraie alegia.

Gu erreka baten alboan jaioak izanik arrantzarako zaletasuna gazte gaztetatik izan genuen hiru anaiok Martin, Bernardo eta nik Joxe Marik.

Zeraingo errekan kangrejoa, ezkalue eta aingera apur batzuk bakarrik zeuden. Mutilo aldean lolina talde galantak baziren arren Murgiaran paretik gora ez ziren igotzen nik uste dudanez ur hotzaren eraginez izango zen agian zenbat eta gorago ur hotzagoa. Baina guk beti amorraiarekin amesten genuen eta amorraia guretzat Brinkola aldean eta hortik Aizkorrondoko erreka koskor haietan genuen gertuen eta harrapatze ezkeror bertara joan behar.

Aizkorrondon hiru erreka dira Brinkola aldean bat egiten dutenak Oazurtz erreka, Altzola erreka eta Aierdi erreka, gu azkeneko hauetan ibiltzen ginan gehienbat.

Gu Artegiko Praiskorekin ibiltzen ginen batez ere gauez, gu bi anaia edo hirurok ere bai noiz behinka, Etxeaundi errekan aingeratan ibiltzen ginen, eta amorraietara Aizkorrondora joaten ginen. Etxetik irten da Aizkorrondora oinez, nondik nora joaten ginen esango dut nahi duenak jakin, Araneko Artegitik bide zidor bat hartu eta Barrenzotz, Zubimalkar, Liztormendi, Munain, Aitzuluzahar, Burutxulo, Antzaitatik, Larrosaina handik goitik behera Brinkolazahar ondora jaisten ginen eta handik aurrera Aierdi baserria pasa ta laster hasten ginen arrantzan ordu ta erdi inguru bidean egin da gero.

Garai haietan Brinkolazaharren famili bat bizi zen, Aierdin inor bizi zenik ez naiz gogoratzen, Brinkolazarraren bazan neska bat Maria izenekoa. Gerora neska hura Zeraingar batekin ezkondu zen Xierdiko Tomasekin, askorentzat Argindegi. Tomas hau Gabiriko Argindegin jaioa izan behar zuen eta hortik Argindegi goitizena. Artzaiak ziran ogibidez aita eta biak Aizkorrrin Arriurdinen egoten ziran udaran, aita Xierdi zaharra oso ezaguna zen mendi horretan geroago Tomas Xierdi Mariarekin ezkondu eta hantxen egoten ziran biak, udaran Aizkorrrin eta neguan Brinkolazaharren.

Hoiek denak eta beste asko ere bai, mundu honetako aldiak eginak dira, har bezate atsedan.

Aspaldian arrastotik kanpora nabil, etorri nadin lehengo bidera.



Ilundu baino ordu eta erdi bat lehenago irtetzen ginen etxetik bidea egun argiz egiteko eta ilunarekin batera hasten ginen arrantzan. Gau guztia arrantzan pasatzen genuen belaunetaraino bustita.

Eta jakin nahi duzu zer arrantza modu egiten genuen?.

Berrogei berrogeita hamar bat amorrain eta dozenerdi bat aingera gutxi gora behera, haiek partituta etzan tripakara haundirik egiteko modurik izaten familian. Afizioak eragiten dituen lanak, gustuko lekuan aldaparik ez, dio esaera zaharrak eta egia biribila benetan.

Nik hamahiru hamalau urte izango nituen gehienez ere, gaurko gaztetxoak onerako edo txarrerako ez dira gu zaildu ginen bezala zaildu eta hobe gainera, jarraitu eskola ikasten eta jolasean, gu era horretan ibiltzen ginan eta gustora gainera eskola ikasi baino nahiago izaten genuen.

Arrantzan legez ez ginan ibiliko, bi karburo kandil argi egiteko, karburo kandilak argi ederra egiten du, gainera erreka zorua ederki ikusten zen harekin, amorraina gauean uretan geldi-geldi egoten da eta sardexka gerturatu egin behar zaio ia bera jo arte, baino ukitu gabe, bestela akabo! Eta kolpe bixi-bixia tira sardexka sartzeko.

Gure erremintak hiru bat sardexka eta tenaza pare bat izaten ziran eta eskuetako abildadea libre, gure Bernardo oso abila zen eskuz amorraia harrapatzen, Martin eta ni ez hainbeste Praisko sardexkaz bakarrik ibiltzen zen, guk ez genuen lejjia eta beste gauza kimikorik ibiltzen, harrapatzen genuena etxera eta besteak bizirik utzi beste batek harrapatzeko ere, Praisko oso gizon zuzena zen hark ez zigun maltzurkeri asko erakutsi.

Furtiboak bai baino nobleak, hurrengo batean kontatuko dut Zeraingo errekan amorraia nola sortu zen.

Ardagaiaren harian

Joxetxo Zufiaurre

Bigarren aleaz geroztik, Xaguon aldizkarian ia oso gutxi erabiltzen ditugun hitzeri buruz Mikel Zalbidek ematen dizkigun xehetasunak oso pozik irakurtzen ditudala adierazi nahi dut aurretik.

Zazpigarren alean "Ardai edo Ardagai" hitzaren inguruan Elenak eta berak berri bat baino gehiago eman dizkigute; azken batean, zuhaitz-enborretatik erauzten den hankarik gabeko onddo honen pusketak sua pizteko erabiltzen zirela.

Hain porotsua izanik, beste egur batzuek ez bezala, lehortzeko duen gaitasunagatik aukeratuko zuten. Behin lehortu ezker, inguratzen zaion su-izpi txikienak ere pizten duelako eta su hura, garrik atera gabe, denbora luzean mantentzen duelako.

Horrela, pospoloak asmatu aurretik, iluntzean gure baserrietako beheko suak itzaltzerakoan ez ziren erabat itzaltzen baizik eta, hurrengo goizean sua berpizteko, errautsa pilatu eta bere azpian ardagaiaren pusketatxo bat piztuta uzten zen.

Urtean behin, urte guzira su berria, zapatu santu egunean bedeinkatutako sua eramaten zen etxera eta sutara bota. Hau egiteko, zapatu santuko elizkizunetara etxekoren bat ardagai pusketak batekin joaten zen eta hura piztuta ekarri.

Su berri hura apaizak egun hartako elizkizunetan bedeinkatzeko ere, piztutako ardagai pusketak bat bedeinkatzen zuen; eta pusketak hau pizteko, sakristauak suharria edukitzen zuen sakristian gordeta eta, ordua baina pixka bat lehenago suharriari kolpeak joaz azpian jartzen zion ardagai pusketak hura pizten zuen. Hau orain dela berrogeita hamar bat urte arte behintzat egin zen.

Baina idatzitxo honen zergatia orain datorrenak adierazten du. Zerainen bada ardagaiaren erabileraren lekuko egiten duen ezaugarria. Eder askoa gainera. Bere inguruan herriko udal-gizonek bilerak egiten zituzten garai bateko Udaletxeko mahaia. Mahaiak dauzkan txoko uneri erreparatzen badizkiogu, erredurak direla ohartuko gera.

Eta erredura horiek, erretzeko ohitura zuten baserritarrak bere pipa edo arto txurikinekin tabakoa bilduz egiten zituzten zigarroak pizteko eraman eta mahai gainean edukitzen zituzten ardagai piztuen erredurak dira.



Ardagaia zuhaitzean.

Garai hartan tabakoa erretzeko, batzuek igeltsuzko pipan sartuta erretzen zuten, eta besteak "arto txorroka" edo "txurikine" izenekin ezagutzen ziren artaburuaren hostoan bilduta zigarroa eginaz. Baina ez artaburuaren edozein hosto, baizik eta artaleak biltzen zituen lehenbizikoekin, beraiek baitziren mehenak eta bigunenak.


Hosto haiek, behar ziren neurrian labanarekin ebaki eta gordetzen zituen erretzaileak. Eta etxetik kanpora zihoanean txurikin batzuk txapel azpian gorde eta eramaten zituen. Tabakoa berriz, larruzko poltsa txiki batzuetan eraman ohi zuten.

Pipan erretzen zutenak, igeltsuzkoak zirenez, kontuz gordetzen zituen txamarraren goiko poltsiko txikian puskatu ez zedin. Baina ahoko txistuarekin igeltsua desegiten zihoalarik, geroz eta pipa motzagoa erabiltzen zuten, azkenean berria erosi behar izate arte.

Goian esan den bezala, etxeko sua ez zen erabat itzaltzen, baina noizbait hori gertatzen bazen, suharriaren azpian ardagaia jarri eta, aitzo edo burdinarekin joaz, suharriari txinpartak ateraraziaz pizten zuten. Bai pipa edota zigarroak etxetik kanpoan pizteko ere, era berdina erabiltzen zuten, harik eta poltsikoko "kixkeroa" edo pizgarria asmatu bitartean.

"Kixkero" hau, argazkian azaltzen den bezalakoa zen, bi tutu elkarren ondoan erantsita. Tutu estuenean suharri pusketak biribil bat sartzen da, azpitik malguki batek bultzatzen diolarik. Eta honela, goian daukan moletari birarazten zaion suharriari txinpartak ateratzen dizkio, eta txinparta hauek tutu loditik ateratzen den metxaren muturra pizten dute, berarekin erregaia piztu ahal izateko.

Gero pospoloa asmatu zutenean gauzak asko erraztu ziren, baina erosi egin behar ziren. Horregatik, geroxeago arte ere, soka lodi eta luzea zintzilika zuen "kixkeroa" izan zen nagusi.



Mahaiaren dauden erreduren bi zati.

Ardaia, Ardagaia

Bada urte-erdi inguru, Elenak bere hitz-zerrenda ekarri zidana. Honetaz eta hartaz, zenbait kontutxo aipatzen ibiliak gara ordutik hona. Lehenengo zerrenda hura amaitzeko puntuan dago. Galtzen ari diren (edota Elenak galtzeko arriskuan sentitzen dituen) hitz gehiago eskatu dizkiot, horregatik. Baita ekarri ere. Han-hemen entzundakoak paperera bildu ditu berak, eta makinaz idatzita zerrendan ezarri. Beste urtebete ingururako berriketa-gaia eskaini dit horrela. Gehiago ere egin du Elenak, egia esan, zerrenda hori prestatzerakoan: herriko hainbat euskaldun garbik, euskaraz erdaraz baino errazago egin ohi duen zeraindar jator askotxok, hitz horiek zertarako eta nola erabiltzen dituen apuntatu dit paperean, hitz bakoitzaren ondoan. Hitz horietako bat da, esate baterako, gaur ikusiko duguna: ardaia edo ardaie.

Has gaitezen errazenetik: ardaia da, edo ardaie? Bukaerako bokala -a du, edo -e? Erantzun biak dira zuzenak. Segun zeri begiratzen diogun, hala izango da erantzuna ere. Euskara batuan (eta hainbat euskaldunen ezpainetan) -a dena -e da Zerainen, herritarrekin edo ingurukoekin (batez ere hitzez, ez idatziz) jarduterakoan. Forma batetik bestera ez dago alde handirik, funtsaren funtsean. Hitzen ebakera ardaia ordeztaraz esatea ez da, noski, inolako nobedade: ez Zerainen eta ez Goierri gehienguan. Artzaie eta afarie berezkoak ditugu bertan, artzai(n)a eta afaria ordeztaraz.

Bestelako duda-muda ere sortzen du hitz honek, forma aldetik: ardaia da, edo ardagaia? Zegaman ardagaia esaten omen dute: horrela dio Azkuek bere hiztegian. Horrela esanik, badirudi ardagai hori jatorrizko forma genukeela, eta ardai delakoa kontrakziozkoa, handik eratorria alegia. Kontraste eta datu-biltze handiagorik gabe kontuz ibili behar izaten da, ordea, dedukzio modu horiekin. On izaten da bestalde, kontraste-lan horretarako, Orotariko Euskal Hiztegi (OEHra) jotzea. Mitxelenaren OEH hiztegiaren badirudi goiko hipotesi hori baieztatu egiten dela: agárico, yesca izenpean ematen dira forma bien definizioak, alde batetik, eta edukiari dagokionez honako hau esaten da, ardai-ren etimologiaz ari delarik: "entran, con toda probabilidad, en su formación los mismos componentes que en ardagai". Are gehiago, ardagai horren etimologiatzat latinezko cardus eta bertako gai ematen dira, hurrenez hurren. Badakigu kardoa euskaraz ongi ezaguna dela, eta bere eratorrietan kard- ematen dela: kardaberatz, esate baterako. Hitz-hasierako k- horren galerak, halere, duda gehixeago sor dezake.

Goazen ordea aurrera, axaleko itxuratik mamiaren barrura sartuz. Zer esan nahi du ardai edo ardagai horrek, eta zertarako erabiltzen da Zerainen? Ikus ditzagun bi puntuak, pausoz pauso. Zer esan nahi du, hasteko, arda(ga)i hitzak? Hiztegi (jotzea) dugu



Garai bateko kixkeroa.

horretarako egokiena. Azkuek honela dio: "cierto agárico sin tallo, cuyas especies viven parásitas en el tronco del alerce, el chopo, la encina y otros árboles". Orotariko Euskal Hiztegiak, berriz, honako hau: "agárico, yesca". Erdal hitz teknikoaren baieztapenez aparte, bestelako informazio osagarriak ere atera dugu hortaz bertatik: gaztelaniaz yesca esaten zaiola ardaia. Horrezaz gainera, bereizketa xume bat ere eskaintzen digu OEH horrek: ardai beltza izaten omen da batetik, eta ardai zuria (edo txuria) bestetik. Erabilera aldetik ere badirudi, biak ondo bereizten direla. Ardai zuriak pilotak egiteko balio omen du. Arantzadik bere garaian (1909an) emandako esplikazioa, aurreko guztiak baino ulergarriago iruditzen zait, bestalde: "la yesca (ardaia) es propiamente un hongo que se cría en los troncos de los árboles, pero también se usa para encender la pipa, el cardo". Bide beretik doa Sarasola bere hiztegiaren, ardagaia (besteak beste) honela definitzen duenean: "zuhaitz batzuen azalean bizi den onddo bizkarroia, sua pizteko erabiltzen zena".

Zertarako erabili izan ote da ardaia, Zerainen? Nondik atera dezakegu horren aztarrenik? Hitz-zerrendaren iturritik beretik. Izan ere, hitz horren berri ematerakoan honako xehetasuna jakinarazi digu Elenak. Zerain aldean maiz entzuten omen da, orain ere, esaldi modu hau: ardaie baino lehorrago dago! Gazteen artean galtzen ari bada ere esamolde hori, edade batetik gorakoan artean asko erabiltzen omen da. Lehor gordetzen zen, hortaz, ardaia. Sua pizteko bilduko zen, Zerainen ere, eta lehorturik gordeko. Bistan da lehor egon beharko zuela ardaiak, sua pizteko balio ahal izateko. Zuhaitz-enborrari itsatsita zegoenean, euriteen ondoan bereziki, laguntza eskasa emango zuen sua pizteko.

Ohar txiki bat, azkenik: gauza bat da ardaia, eta beste bat mihura, gaztelaniaz muérdago esan ohi dena: biak arboletan hazten dira (ez edozein arbolatan, hala ere), eta biak dira probetxugarri. Oso diferenteak dira biak, ordea, azal eta mami. Hurrengo batean hitz egingo dugu mihuraz, gustu baduzue, hori ere gutxi erabiltzen baita, antza, gazteen artean.

Mikel Zalbide: XaguArte 7

Aizpeako meategia

“Burdinaren mendia”

Urte berriaren hasierarekin batera Zeraingo Aizpeako Meategian beste urrats berri bat eman dugu. Aizpita etxea dagoeneko berritua, laster barruan Meategia bera eta burdinaren euskal historia ezagutzeko erakusketak jarriko dira. Era berean galeria bat barrutik bisitatzeko moduan jartzeko lanak hastekotan dira. Bestetik hainbat urtetan mea hara eta hona erabili zuen trena berriz martxan ikusteko beste koska bat aurreratu da proiektua egina baita dagoenerako.

Mendia eta Burdina

Esan bezala, urtearen hasierarekin urrats berri bat eman da: meategiko mendiaren ingurumena eta bertan barreiatuta dagoen ondare industrialia ezagutzeko ibilbideak seinalatzatu dira. Meategiko mendia, Aizkorri-Aratz Parke Natural izendatu berrian

barruan dago eta ikaragarri aberatsa da bai fauna bai flora aldetik eta aniztasun honetan esanguratsuenak diren arloak azaltzen dituzten panel-mahaiak jarri dira (hagina, pago motzak eta egur-ikatza, saguzarrak, okilak, arkanbeleak...). Bestetik, ehunka urtetan bertan burutu den burdina atera, garraiatu eta erretzearen ondorioz, langintza hauen aztarnaz josia dago mendi osoa. Harrobiak, galeriak, trenak, herrestabideak, bolborategiak, tailerrak, biltegiak, labeak etab historian zehar nola lan egin den ulertzeko moduan azaltzen dira dauden tokian bertan.

Bai mendiko ingurumenari eta bai bertan milaka urtetan burutu den burdinaren ustiaketari lotutako hamabost gune hauetako bakoitzean panel-mahaiak jarri dira. Mendia eta bertan burutu izan diren lan guztiak

ezagutzeko bi ibilbide proposatzen zaizkio bertaratzen denari: bata, motza, labeen ingurua miatzeko eta bestea, luzea, mendia bera eta bertako burdin ustiakuntzaren historia azaltzen duen ondare osoa ezagutzeko. Bata zein bestean topatuko ditugun mahai hauek gai bakoitzari buruzko informazio zehatza eskaintzen digute eta Euskal Herriko hizkuntzetan jarriak daude: lehenetsita eta nabarmen euskaraz eta baita gazteleraz eta frantsesez ere.

AIZPEAKO MEATEGIA, BURDINAREN LURRALDEA

Aizpeako meategiko 150 hektarea zabaletan, mendeetan zehar ustiatutako meatzaritzaren hainbat aztarna diraute. Euskal meatzaritza ulertzeko meategi honek garrantzi



OSTATU
JATETXEA

20214 ZERAIN
Tel.: 943 80 17 99



handia du Bertan eremu txiki eta bildu batean mea ustiatzeko erak (harrobiak eta meazulo edo galeriak), garraiobideak (herrestabideak, errailak, trenbideak, kableak,...) kiskaltze labe ikusgarriak eta langintza osagarrien aztarna ugari dago (bolborategiak, konponketa lantegiak, kantinak, bulegoak, pozaderak,...)

Meategiko gune bakoitzeko ustiapena amaitu edota abandonatu zenetik, berezko landaretza eta fauna garatu da, eta ez nolanahikoa: burdinaren lurretakoa. Bi osagai hauek uztarrian hartuta, bertako ekosistema eta mendeetan zehar eman den meatzaritza ustiapena, Aizpeakoa bakarrik den kultur paisai bitxia garatu da.

BURDINAREN USTIAKETARI LOTURIKO AZALPENAK

Lurrazaleko harrobiak

Aire zabaleko meatze harrobiak Aizpeako meategiko mineral iturri oparoenetakoak izan dira. Erdi Aroaz geroztik ezagunak diren bertako hematite arrea edo limonita eta

burdin karbonato betak XIX mende erdialdetik aurrera erruz ustiatu ziren.

Lurpean lanean

Lurrazaleko harrobietako mea agortzean lurpeko burdin betak ustiatzen hasi ziren meazuloak zabalduz XIX. mendearen erdialdera. Meazuloetan, bertako materialez zutabe trinkoak uztearen sistema erabili zen sabaiari eusteko. Habetu edo eskoratzeko egurrezko egiturak eta azken aldian hormigoizkoak ere erabili ziren.

Minerala zulatu, leherrarazi eta zatiak egin ondoren kanpora atera zuten mekanikoki edo langileek bultzatutako bagonetetan. Meazuloak aireberritzeko tximini itxurako zuloak zituzten.

Meategi honetan 200 meazulo inguru daude eta beraietatik ez zen burdina soilik atera, baita beruna eta kalamina ere.

Egur-ikatzak garai bateko petrolioa

Aizpeako meategitik ateratako minerala bertako egur-ikatzarekin kiskaltzen zen gero inguruko burdinoletan eta labeetan burdina

sortuz. Burdin hura guztia erretzeko ikatz asko behar zen eta beraz, ikatz-txondor ugari zegoen Aizpeako mendietan. Mendiak sutan zegoela zirudien. Txondor-plazak ugari ziren tokietan, zuhaitz motzez (pago-motzak, gaztain-motzak) osatutako baso berezia sortu zen.

Txondorretan, zuhaitz adarrak egosiz ikatza sortzen zuten. Zuhaitzei adarrak moztu, txondorra eraikiko zen gunea prestatu (txondor-plaza, forma zirkularreko lautadatxo), txondorra eraiki eta honi su emanaz, 12-13 egunen buruan 6000 kilo ikatz lortzen ziren. Ikatza hoztutakoan zakuetan sartu eta saltzera eramaten zuten.

Konpainia Inglesak eraikitako lurren-trenak XX. mendea ekarri zuen Zeraina

XIX. mendearen bukaera eta XX. mendearen hirugarren amarkada bitartean, konpainia ingeles batek ustiatu zituen Zeraingo meategiak (The Cerain Iron Ore Company Limited). 1907 aldera, behor eta mando jendea ordezkatzeko zuen trenbidea eraiki zuen konpaini honek.

Honela, mea galerietatik errazago eta azkarrago garraia zitekeen labeetaraino. Burdin bide estuaren gainean ibiltzen zen tren honek lurruna erabiltzen duen trakzioarako.

Herrestabidea, mea labea di-da batean

Hasiera batean mearen garraioa gizakien eta animalien indarra erabiliz burutzen bazen ere, gerora herrestabideak garatu ziren. Herrestabideak toki aldapatsuetan mea garraiatu ahal izateko egiturak dira. Egitura hauek kableaz lotutako bagonetez zeuden osatuta eta kargatutako bagoneta jaistean, honek eragindako indarrak hutsak igotzen zituzten gora. Bi herrestabide daude Aizpeako meategietan, goikoa eta behekoa.

Alemaniano diruak burdin-bide berria eraiki eta diesel-trena ekarri zuen

XX. mendeko hirugarren hamarkadan, kapital alemana zuen Montana S.A./Compañía de Explotaciones Mineras Aralar S.A enpresak lortu zuen Aizpeako meategiak ustiatzeko baimena. Hauek, Basalategiko meatzea eta Aizpitako labeak lotzen zituen 2Km-ko burdin-bide berria eraiki zuen.

Tren berri honek, trakzio gisa ikatza erre eta lurruna erabili beharrean, diesel erregaia erabiltzen zuen. Trenbide honetan, mendiaren bi hegala lotzen zituen tunel bat eta Makinetxe eraikina daude, zeinean trena mantentzeko tailerra eta sutegia zegoen. Guztiak hormigoiz eginak ordura arte ez bezala.

Labeetan burdin mea kiskaltzen



XX. mendearen lehen hamarkadan, meategien ustiapen biziagoa ahalbidetu zuten eraikinak egin ziren: mineral eta ikatz biltegiak, kiskaltzeko labeak, kable bidezko garraio-sistema... Meategi osoan erauzitako minerala labeetaraino ekartzeko garraio-sistema korapilatsua ezarri zen: herrestabideak, meatze-trenbideak, abereentzako errail-sistemak...

Kiskaltzeko labeetan, minerala kiskaliz bere burdin proportzioa handitzen zen.

-Mineral gordinaren biltegia: Bagoneta bidez ekarritako minerala biltegiara deskargatzen zen. Hemendik, bagoneta bidez minerala labeen gaineko zulo edo atera eramaten zen.

-Kiskaltzeko labeak: Burdin mineralaren karbonatoa kiskaltzen zuten hemen 900°C ingurutan. Burdina kiskaltzeko erregai gisa ikatza erabiltzen zen. Labea bi burdin mineral geruza artean ikatz geruza bat jarritz betetzen zen. Labeek etengabe lan egiten zuten, beheko ateetatik burdin kiskalia atera ahala, goitik labea betetzen zen.

-Kiskalitako mineralaren biltegia: Labetik ateratako mea bagoneta bidez azpiko biltegiara eramaten zen. Biltegiak dauzkan 8 ahoetan mineral-baldeak betetzen ziren eta kable batetik zintzilik Mutiloaraino garraiatzen zen burdin kiskalia.

-Garraioa: Hasiera batean minerala Mutiloaraino garraiatzen zen, handik meatze-trean



TELLERINE BASERRIA

NEKAZALTURISMOA

Jose Migel Arrondo Irastorza

Aizpea Auzoa
Tel. 943 58 20 31
20214 ZERAIN

Ormaiztegira eramaten zen eta hemen, Norteko Trenean Pasaiako portura bideratzen zen. Pasaiatik itsasontziz Europako merkatuetara eramaten zen. Gerora, zuzenean Ormaiztegiko trenarekin zuzenean lotzen zituen kable sistema eraiki zen.

Egunean 40-50 tona mineral kiskaltzen zen.

LANDARETZA

Begira, basoa etengabe garatzen ari da

Meatze-ustiapena amaitu zenean (1950 inguruan), meatze inguruan ez zegoen landarerik, leku hil eta antzua zen. Baina geroztik, lur antzu hartan, baso emankor bat ari da sortzen berez pausuz pausu:

-Goroldio eta likenek kolonizatu zituzten harkaitz antzuak lurzoru emankorra sortzen hasiz. Lurzorua emankorrago bilakatu ahala, beste landare belarkara batzuk ingurua kolonizatzea ahalbidetu zuten.

-Landare belarkara hauek, garatzen ari den lurzoru berria materia organikoz hornitzen dute lurzoru emankorragoa sortuz eta

maila altuagoko bizidunak bertan haztea ahalbidetuz, sastrakak adib.

-Jarraian, zuhaixkak eta azkenik zuhaitzak garatuko dira inguru honetan ekosistema konplexu eta aberats bat osatuz.

Baso honetan urkia oso ugaria da, izan ere mineral-pilak oso erraz kolonizatzen ditu.

Gure paisaia, baserritarren maisu lana

Zeraindarren bizimodua baserriari eta mea-ustiaketari lotua egon da erdi aroaz geroztik. Aktibitate horien ondorioa dira egun Zeraingo paisaiaren ezaugarri diren lur ustiaketa mota ezberdinak:

-Baserriak: etxebizitza eta ustiategiaren ardatza

-Baratzeak: Giza kontsumorako barazkiak landatzen diren eremua, baserri ondoan kokatua.

-Soroa: Giza kontsumorako nahiz animalien kontsumorako erabiltzen diren elikagaiak landatzen dira. Baratzak baino azalera handiagoa du.

-Sega-belardiak: Modu ezberdinetan aprobetxatu dira: larre-barruti gisa, belar freskoa ateratzeko, belar ihartua metatan bilduta...

-Eskadura: Lursailek mugak



zehazteko erabiltzen ziren zuhaixkez eginiko hesi naturalak dira. Funtzio ekologiko garrantzitsuak betetzen dituzte eskardurek

-Pinudia: Espezie bakar batek osaturiko ustiaketa intentsiboa da. Ugariena intsinis pinua, jatorriz Kaliforniakoa.

-Basoa: Egun ikusten diren hostogalkorren basoak, garai bateko basoen hondarrak dira. Lehengai





Gure saguzarrak, ez itsu ez odol-zurrupatzaile.

Saguzarrak hegari egiteko ahalmena duten ugaztun bakarrak dira, eskuko atzamarren artean duten mintz finari esker.

Gure inguruan badira kolonia garrantzitsuek. Mutiloen ferasaguzar handiak (*Rhinolophus ferrumequinum*) eta Geoffroy saguzarrak (*Myotis emarginatus*) eta Beaman baratze-saguzarrak (*Eptesicus serotinus*) umetzen dute. Hauek gailu, ferasaguzar txikiak (*Rhinolophus hipposideros*) ere meategi eta baserrietan ezaguna da. Azurrean dardur meategi garrantzitsua izan daiteke espezie horientzat.

Euskal Herrian dauden 24 espezie desberdinek intsektuak jaten dituzte, baina ere eltxoak, eulak, itsak eta kaxalardoak. Saguzar bako bako 1.000 intsektutik gora jan ditzake gau batean!

Gisakiarentzat onuragarriak dira, kaltegarriak diren intsektuak elikatzen baitira. Azterkian daudenak, gutxi babesturik daude, saguzarren bat aurkituz gero, dagoen tokian urtea da onena.

- Gurean hegari egin ahal izateko orientazio sistema berezia erabiltzen dute, ekakikapena deritza. Inesentzen radar edo sonaren antzera, gure belarriak ezin entzun dituzkeen soinuen igoeritza jasotzen duten pihortzuen bidez, ingurumenaren hiru dimentsiotan irudia erretzen dute. Sistema hori esker zuhaitzen adar eta hostoen artean mugitu daitezke eta hegari dagoen harrapakinak detektatu.
- Espezie desberdinek kabaculo, meategi, umakala, zuhaitz zulo, erakuntza eta abar erabili ditzakete babesleku gisa. Gehienak kolonietan bizi dira.
- Saguzarrak 30 urte bizi daitezke. Urtero kume bakoari haren dute, hau bi hilabetez amaren erretan bizi dira.
- Neguak, elikagai dituen intsektuak urritzen, lehorrean sartzen dira, gehienetan kabazuloetan edo meategietan galdietan.

Rhinolophus ferrumequinum
Myotis emarginatus
Rhinolophus hipposideros

garrantzitsua izan dira baso hauek (su egurra, zura, orbela, ikatza...ateratzeko).

-Fruta-arbolak: Baserri ondoan maiz topatuko dira sagasti, gaztainadi eta urriztiak eta baita intxaurrendak, gereziandoak...

Hagina, pozoia eta sendagaia zuhaitz berean

Hagina (*Taxus baccata*) zuhaitz ugaria izan bada ere inguru hauetan (kontuan izan Gipuzkoako armarrarian agertzen diren hiru zuhaitzak haginak direla), egun oso urria da. Bere zuraren balioak (arkuak, kupelak, ontziak...egiteko) eta pozoitxoak izateak asko murriztu du bere kopurua. Aizpea inguru honetan, 300 aletik gora daude; Gipuzkoan hagin gehien dituen txokoetako bat da.

Ia zuhaitz osoa pozoitsua izanik ere (dena fruituaren mami gorria izan ezik), minbiziari aurka egiteko aurkitu den sustantziarik eraginkorrenetakoa du: taxola. Behorak hostoak jan eta minutu gutxira hiltzen dira.

Zuhaitz hosto iraunkorra da eta beraz, balio ekologiko handia du,

izan ere, hotzaren aurka babesleku garrantzitsua da animalia askorentzat. Dioikoa da, hau da, ale arrak eta emeak daude eta 2000 urte inguruko biziraupena du. Bere pozoia ehizarako nahiz gerrarako erabilia izan da.

Perretxikoak lurpeko onddoen fruitua

Aizpeako meategietako basoetan zuhaitz espezie ugari bizi dira eta hauen sustraiek perretxiko-mota ugari garatzea ahalbidetu dute. Perretxikoek ezinbestekoa dute sustraiei lotuta egotea, izan era hauetatik lortzen baitute bizitzeko elikagaia. Aldi berean, zuhaitzentzat ere onuragarria da bere sustraian onddoak izatea, honek, ura eta gatz mineralak eskuratzen laguntzen baitie eta gainera lurra ongarriztatzen die.

Onddoetan bi zati bereizten dira: mizelioa (lurpean dagoen sare fin baten modukoa da) eta perretxikoa (lurrazalera ateratzen den onddoaren ugal-organoa da, guk jateko jasotzen duguna alegia).

Panelean, Aizpeako basoan topatu ditzakegun perretxiko jangarri eta

pozoitsuen zerrenda bat agertzen da.

FAUNA

Basoko zuhaitz hilak, arkanbelaren bizia

Arkanbela Euskal Herriko intsektu lurtar handiena da, basoetan bizi da eta babestua dago. Bere bizitzaren zatirik handiena lurpean igarotzen du larba moduan egur ustelaz elikatuz. Hostozabal basoen desagerpenak eta enbor eta adar hilen garbiketak asko kaltetu dute espezie honen etorkizuna.

Arkanbelaren larbak 4-6 urte pasatzen ditu lurpean egur ustelaz elikatzen. Behin heldutasunera iritsita, hilabete gutxi irautea dute bizirik eta bitarte horretan beraien lana ondorengoak uztea da. Hori dela eta denborarik gehiena bikotekidea aurkitzen pasatzen dute. Egurraren deskonposaketan laguntzen du espezie honek eta beraz, lurzoruaren eraketan parte hartzen du.

Arkanbelari lagundu nahi izanez gero, nahikoa da enbor edo adar zati batzuk metatu eta usteltzen uztea,

honela arkanbele emeak arrautzak errun eta hauetatik sortutako larbek elikatze gaia izango dute.

Gure saguzarrak, ez itsu ez odol-zurupatzaille

Saguzarrak hegan egiteko ahalmena duten ugaztun bakarrak dira eskuko atzamarrak lotuz duten mintz finari esker. Inguru honetan kolonia garrantzitsuak daude. Euskal Herrian dauden 24 espezieak intsektuez elikatzen dira eta beraz, onuragarriak dira gizakiarentzat, kaltegarriak diren intsektuez elikatzen baitira. Arriskuan daudenez, guztiz babestuta daude.

Babesleku eta bizitoki gisa kobazulo, meategi, arrakala, zuhaitz-zulo, eraikuntza...erabiltzen dituzte eta beraz, Aizpeako mea-zuloak garrantzitsuak izan daitezke beraien biziraupenerako.

Saguzarrek, orientazio-sistema berezia dute, ekokopakapena alegia. Guk entzun ezin ditzakegun soinuak igorrita, jasotzen dute oihartzunaren bidez inguruaren hiru dimentsiotako irudia eratzen dute. Sistema honi esker, lasai hegan egin dezakete zuhaitzen adar artean eta baita intsektuak detektatu eta harrapatu ere.



Okila, basoko beste animalientzat etxegilea

Okilak zuhaitzetan bizitzera moldaturik dagoen animalia da. Enborretan bizi diren intsektuez elikatzen dira eta hauek harrapatzeko enborrean zuloak egiten dituzte. Urtero zulo bat egiten dute enborrean habia jartzeko. Okilak eginiko zulo hauek beste animalia askok erabiltzen dituzte gero, beraien abialeku, ezkutaleku, biltegi... gisa.

Honenbestez, okilak bizi diren basoak bioaniztasun handiagoa dutela esan daiteke. Euskal Herrian 7 espezie ezberdin daude eta hauetako hiru behintzat ikus ditzakegu Aizpeako basoetan.

Enborrak zulatu ahal izateko moko sendoa, intsektuak harrapatzeko mihi luzea eta enborretan gora eta behera ibiltzeko hanka bereziak dituzte hegazti hauek.



Zerain nekazaritzari lotuta bizi izan den herria da. Etxezuzkerko produktua ZERAIN PARKE KULTURALA da.

HERRI MUSEOA. Herriko bizimodu eta ohiturak
1711.KO KARTZELA.

LARRAONDOKO ZERRATEGIA. Uraren indarra XIX. Mi
AIZPEAKO MEATEGIAK. Burdinaren ustiapenaren garap

MANDIOA DENDA. Herriko produktuak eta artisautza
HARIZTIERDI ATERPETXEA.

www.zerain.com

Zerain Parke

Kulturala

Zeraingo turismo bulegoa
Herriko plaza, z/g.
20214 ZERAIN
Tel. 943 80 15 05
Faxa 943 80 16 06
turismobulegoa@zerain.com

Eskola txikien festa: indarrak batu eta elkarrekin ondo pasatzeko hitzordua

20 urte pasatu dira Gipuzkoako Eskola Txikiek euren festa ospatzea erabaki zutenetik. Ordutik gaur arte urtero ospatu izan da jaia, helburu garbi batekin: Eskola Txikien txikitasuna indartzea

FESTAREN SORRERA

Gipuzkoako Eskola Txikien festa nola eta noiz sortu zen jakiteko, 20 urte atzera jo behar dugu, 1987ra. Orduan, Eskola txikiak oso ahul zeuden. Arazoei aurre egiteko eta egoera hobetzeko asmoz, irakasle talde batek elkarlana bultzatu zuen, asmo garbi batekin: Eskola Txikien garrantzia aldarrikatzea eta irakasleen formazioa eta koordinazioa.

Hurrengo urtean, 1988an, ospatu zen Bidegoianen lehen festa. Festak segida izan zuen hurrengo urteetan: 1989an, Berastegin; 1990ean, Gaztelun; 1991n, Gabirian, 1992an, Aian; eta 1993an, Aizarnazabalen.

Irakasleek koordinazio eta elkarlanean bost urte zeramatzatenean, 1993an, beste urrats garrantzitsu bat egin zen: 11 herrietako guraso elkarteek Gipuzkoako Eskola Txikietako Guraso Elkartearen Koordinadora sortu zuten. Ondorengo urteetan gainerako herrietako guraso elkarteak koordinadoran sartzen joan ziren, eta 26 izan arte. Gertakizun horrek hasitako bidea sendotu zuen, dudarik gabe. Zeraini dagokionez, bertako gurasoak harremanetan hasi ziren koordinakundearekin, eta bi urte geroago, 1995ean, guraso elkarteak sortu zen eta Koordinakundean parte hartzen hasi ziren.



Koordinakundea sortu zenetik, beste 14 festa ospatu dira beste horrenbeste herritan. Festaren helburua Gipuzkoako herri txikietako haur eta gurasoek, irakasleekin batera, gure txikitasuna indartzea da. Helburua ez da jai masibo bat egitea, Eskola Txikietako partaide guztiak elkartzea baizik. Festak lema bat du, urtez urte mantentzen dena: "Eskola Txikiak bizirik, herri txikiak bizirik". Festa antolatzekeo ardura, berriz, koordinakundea osatzen duten herriena da eta urtero aldatzen da herriz. Oraindik ez da festa herri guztietan egin, baina gutxi dira festa antolatzekeo falta diren herriak. Festarekin batera kamisetak ateratzen dira, eskola guztietan saltzeko. Salmentarekin batzen den dirua egun horretan sortzen diren gastuak estaltzeko izaten da.

2005. urtera arte jaialdia izan zen festaren ekitaldi nagusia. Jaialdian, eskola guztietako haurrek zerbait aurkezten zuten. Zeraingo eskolako haurrek Adunan (1997) parte hartu zuten lehen aldiz jaialdian. 2005ean, Elgetako herriak festa antolatu zuenean, jaialdia egin ordez guneka jolasak egitea proposatu zuen eta guztion adostasunarekin halaxe egin zuten. Elgetakoaren atzetik Igeldo eta Zubietako festak etorri dira eta

FESTAK URTEZ URTE	URTEA
Bidegoian	1988
Berastegi	1989
Gaztelu	1990
Gabiri	1991
Aia	1992
Aizamazabal/Aizarna/Arroa/Oikia	1993
Ikaztegieta	1994
Errezil	1995
Lizartza	1996
Aduna	1997
Zizurkil	1998
Alkiza	1999
Albiztur	2000
Angiozar	2001
Ereñozu	2002
Asteasu	2003
Aizamazabal	2004
Elgeta	2005
Igeldo	2006
Zubietako	2007



ARAKAMA
barne diseinua

Hiribarren, 24 Tel. 943 888 717 - 652 775 955 a.arakama@euskalnet.net
20210 - LAZKAO - Gipuzkoa



Elgetan hasitako formatuarekin jarraitu dute. Elgeta nahikoa herri handia da, Zerainekin konparatuta, behintzat. Igeldo eta Zubietak, Donostiako auzoak direlako, babes handia izan dute jaia antolatzeko orduan. Datorren urtean guri dagokigu festa antolatzeko ardura lehen aldiz, eta gure eskolako 25. urteurrenaren ospakizunekin uztartu nahiko genuke. Erronka handia da: gure aukerak kontuan hartuta festa goxo eta polit bat antolatzea. Eta horretan Zeraingo herritar guztien partehartzea nahiko genuke: ikasleena eta ikasle ohiena, gurasoena eta guraso ohiena, irakasleena eta, nola ez, parte hartzeko eta lanerako prest dauden herritar guztiena.

ESKOLA TXIKIAK: ZER ETA ZERGATIK?

"Batzuetan hobe izatea txiki...", zioen iazko festaren abestiak eta halaxe da, behintzat, Gipuzkoan dauden 26 eskola txikietan. Gaur egungo Eskola Txikiak modernoak



dira, kalitatezkoak eta aurrerakoiak metodologikoki. Eskola komunitate txiki bat da, ikaslea bere ikasketen protagonista izaten da eta besteekin hartu emanean ikasten du: berak baino gehiago dakitenekin zein gutxiago dakitenekin. Irakasleak proposatutakoaren gainean, haur bakoitzak bere mailan ikaste-

prozesua eraikitzen du. Eskola herrian bertan izateak haurren hezkuntzan eta herriko bizitzan du eragina. Herri baten altxorra bertan bizi diren pertsonak dira eta horien artean zer esanik ez haurrak. Haurtzaroan eraikitzen dira jakintza, hezkuntza eta elkarbizitza zorionsu eta orekatua lortzeko oinarriak. Gure



haurrak herrian nahi ditugu, gure hizkuntzan haziz eta heziz, herrikoak izateaz harro senti daitezen.

Arestian aipatutako komunitate txiki horretan, irakasle eta ikasleez gain, gurasoak egoten dira. Beraien parte hartzerik gabe zaila izango da eskolaren proiektua aurrera ateratzea. Haur, irakasle eta gurasoen inguruan herri-dinamika interesgarriak sortzen dira; horiek dira eskola komunitatearen eragile nagusiak, baina ez bakarrik. Udalak oso paper garrantzitsua jokatzen du, eskola babestea, hain zuzen ere.

Herri txikietako eskolen kontra erabili izan diren argumentu nagusiak hezkuntza kalitateari eta batez ere ekonomiari lotuak izan dira, baina funtsean argudio ekonomikoak gailendu izan dira. Globalizazioa munduaren jaun eta jabe den honetan, Eskola Txikiek inoiz baino zentzu handiagoa dute geure herrien eta herritarren identitatea eraikitzeko tresna garrantzitsu eta ezinbestekoak direlako.

Herri guneko eraikin nagusia den Andra Mari Eliza XV. mendearen lehen zatian eraiki zela esan Zer ikusi



MYJIKÀ JATETXEA

Liernia • Tfnoa.: 943 80 16 99 • 20214 MUTILOA

Andra Mari eliza

Herri guneko eraikin nagusia den Andra Mari Eliza XV. mendearen lehen zatian eraiki zela esan dezakegu, bertan dagoen hilobia 1457an eraiki izan baitzen, nola nahi ere aurretik egurrezko eliza bat bazela uste da.

Zer ikusi asko eskaintzen du, baina aipatzekoa da harribitxiz apaindutako kobrezko gurutze erromaniko ederra.



XII. mendekoa da, Gipuzkoako bakarra, Zegamako elizan dagoenaz gain. Gurutze hau Lorentzo Arakama apaizak aurkitu zuen 1960an. Baita ere, aurkitu zuen Bataio Ponte bat gaurko egunean atzeko atearen ondoan dagoena eta ume batzuen irudiak dauzkana, beraz, irudi erlijiosoak ez direnez, Ponte hau XV. mende aurrekoa izan dezakela esaten da.

XVII. mendeko harri landuz eginiko Bataio Pontea ere ikus dezakegu, elizaren atzealdean. Bataio Pontea baditu irudi ezberdinak bere inguruan: Zeraingo armarría, eguzkia, lehoia, mahats lukua, ilargia, etab.

Ur bedekatuarentzako hiru ontzi, korua, pulpituak, aldare nagusia

eta albotako bi txikiak, hilobiak, arku korala, bobedak, etab dira Andra Mari Elizaren edertasuna osatzen duten beste elementuak.

SORTZE ETABERRITZEA

1556 urteko Bataio Liburua da dokumentu zaharrena, baina elizan dagoen Joan Garcia de Cerainen hilobian gotikoz jartzen duen idazkiak, "Hilobi hau Joan Garcia de Cerainek egin zuen, 1457 urtea", dio eta XV. eta XVI. mendean famili honek izena zuen boterearen adierazle bezala geratu da gaurko egunera arte.

Gaur egun ikus dezakegun eraikina, berriz, XVIII. mendean eginiko eraberritze lanen ondorioa da. Elizaren egoera lasgarria ikusita, eta Doña Maria de Cerain y Zarauzen eskariz, 1709 urtean Iruñeako Artzapezpikuak eraberritze lanak hastea onartu zuen, lan hauek Juan de Carrera arkitektoak eginiko planoetan oinarritzen dira, nahiz eta aldaketa ugari jasan zuten, herritarrek egiten zuten lanen jarraipen zuzena zela eta, lan hauen ondorioz, hasierako egurra Zeraingo Oa harrobiko harriz ordezkatu zen.

Kanpoko lanak bukatutakoan barne apainketari ekin zioten, eta gorabehera batzuen ondoren, Diego



Martinez de Arzeren jarraibideetan oinarrituz egin ziren gaur egun ikus daitezkeen barroko estiloko hiru erretaulak.

HILOBIEI BURUZ

Aipaturiko XV. mendeko Joan Garcia de Cerainen hilobiaz gain, herritarren hilobien aztarnak ere badaude. XVIII. mende bukaera arte erabili ziren, herriko familia bakoitzak elizaren atzeko aldean hilobi bana baitzuen. Hilobi bakoitzaren gainean familia bakoitzak aulki bat jartzen zuen. Hilobi hauen kokapena markatzen duten zenbakiak ikus daitezke oraindik eta bere garaian baserri bakoitzak zenbaki hori bera zuen.

Laida eta Andoni Alustiza

Zirain

Lurrindegi, Kosmetika eta Erregaluak

San Inazio kalea, 14 - Tel. 943 88 93 90 - 20200 BEASAIN

Garagarza plaza, 1 - Tel. 943 80 53 27 - 20240 ORDIZIA

San Frantzisko pasealekua, 8 Tel. 943 65 02 39 - 20400 - TOLOSA

Madagaskar uhartea

Behin batean Madagaskar uhartean animalia desberdinak bizi ziren. Jirafa alkatesa zen eta bere senarra krokodiloa zen. Biak maitemindu eta jirakrokoka jaio zen.

Uharte hartan ahate bat ere bizi zen. Ortzadarraren kolorekoa zen.

Goiz batean ahatea erreka sartu zen eta kolore guztiak galdu zituen. Inork ez zuen ezagutu eta ahatea negar eta negar aritu zen goiz osoa. Ondoren tximu andrea etorri zen bere familiarekin eta bere seme txikiak zuhaitz puntara igo zen eta banana handiena hartu zuen eskorpioi sendagileari deitzeko. Eskorpioia berehala etorri zen bere motoan eta bere isatsean zeukan xarabearekin sendatu zuen ahatea.

Madagaskar uhartean denak oso-oso pozik bizi izan ziren.

Oihane Lazkanoiturburu

Lau anaiak

Baziren egun batean lau anai Urko, Josu, Urki eta Haitz. Lau anaiak bizikletan ibiltzen ari ziren. Oztopo bat pasatzeko salto egin beharra zegoen. Lehenik Urki egin zuen salto, ondoren Haitzek egin zuen salto, atzetik Urkok egin zuen salto, eta azkenik Josuk egin zuen salto eta denek lortu zuten salto egitea.

Salto egin zutenean denek AUPA! esan zuten, baina aurrean sasiak zeudela konturatu ziren eta ezin zituztela pasa. Baina, Adur izeneko mago bat etorri zen eta bere makilatxo miragarriarekin txirrinduei hegoak jarri zizkien eta sasiak gainetik pasa zituzten eta etxera joan ziren.

Haitz Balerdi

Dunbo lapurrek bahitu zuten

Behin batean bazen Dunbo izeneko elefante txiki bat. Kanpora zihoala lapur batzuk afaltzen jan nahi zuten. Hurrengo goizean Dunbo bere lagunekin jolastera joan zen eta ezkutaketan jolastu zuten eta Dunbo para izan zen. Kontatzen ari zela lapurrek harrapatu egin zuten.

Dunbok esan zuen: - Lagundu lagunok!
Eta lapurrek: - Ixilik!

Dunboren lagunak bere amari kontatu zien gertatutakoa. Dunboren amak esan zuen: -Ai, nire umea lapur horiek harrapatuko zuten. Lapur horiek ikusten baditut, jota hil egingo ditut!

Dunboren ama eta bere lagunak Dunboren bila joan ziren. - Dunbo, non zaude? Eta bilatu eta bilatu ibili ziren baina ez zuten aurkitzen. Gaua iritsi zen eta etxera joan ziren baina Dunboren ama negarrez joan zen.

Hurrengo goiza iritsi zen eta Dunboren bila joan ziren. Zaku bat ikusi zuten eta bertan Dunbo zegoen. Isil-isilik joan ziren Dunbo askatzera eta salbatu egin zuten.

Dunboren amak hankarekin zartakoak eman zizkien lapurrei eta hauek alde egin zuten.

Maialen Alustiza



« izal »

IMAZ ETA CONTRERAS

PINTURA eta PAPERGINTZA

Tel: 943 18 70 49 – 943 18 70 45

20213 IDIAZABAL

Arrosa ur beharrean

Behin batean bazen arrosa eder-eder bat.

Arrosa izena izan arren, tomatea baino gorriagoa zen. Baina Arrosa gaixoari ez zien urik botatzeko eta petaloak erortzen hasi zitzaizkion, hala ere arrosa hau ez zen hiltzen, baina hogei egun egonez gero urik gabe hilko zen.

Hamargarren egunean uso txuri bat etorri zen eta arrosa hartu eta beste etxe batera eramanez, beste lore batzuekin utzi zuen. Han ur asko botatzen zuten eta arrosa sendatu egin zen eta lagunak egin zituen.

Lore talde hartatik Arrosa gorriena eta ederrena zen.

Hori hala bazan,
sar dadila kalabazan
eta atera dadila
Zeraingo plazan.



Irati Saez de Egilaz

Karpa zaharra

Bazen behin batean zirko bateko karpa zahar-zahar bat. Karpa zaharra oso zoriontsua bizi zen, ohituta zegoen egunero zirkoa ikusten. Karpa zaharra berrogeita hamar urte egon zen zirkoan. Urte horietan Asia, Afrika, Amerika, Ozeania eta Europako herri gehienak ezagutu zituen.

Egun euritsu batean karpa zaharraren petatxu handiak eta fuerteak askatu eta euria zirkoa sartzen hasi zen eta dena konpontzen saiatu ziren arren, ezin izan zuten. Bat batean tximista batek karpa eusten zuen posteari eman eta erditik erabat txikitu zuen.

Jende guztiari joateko denbora eman zieten zirko indartsuek eta elefanteek karpa lurrean jartzen lagundu zuten.

Hurrengo goizean petatxu guztiak konpondu eta karpa berria erostea pentsatu zuten. Dena den jabeak zalantzak zituen karpa zaharra aspalditik zegoelako berarekin eta oso lagunak zirelako. Orduan jabeari ideia bat bururatu zitzaion: karpa berria erosi bai, baina zaharra ez bota. Karpa berria seguruagoa zen eta karpa zaharra barruan jarri zuten.

Zirkoak, nahiz eta aurretik arrakasta handia izan, handiagoa izan zuen oraindik.


Eta txin eta txun
txin txan txun,
karpa zaharra eta
berria lagun.



Zerainen elurra

Behin batean zerain izeneko herri txiki batean elurra ari zuen eta jaiotza jartzen ari ziren eta ume guztiak pozik zeuden olentzero zetorrelako. elurra egin zuelako mendira joan ziren trineoan ibiltzera. pozik ibili ziren blai-blai egin arte.

Eta poz-pozik joan ziren etxera ondo pasa zutelako



Aroa Saez de Egilaz
Josu Lazkanoiturburu

HIZKI-ZOPA

Hizki zopa honetan Zerainen dauden eraikin eta eskulturen 7 izen daude. Ea aurkitzen dituzun.

A	U	I	J	F	V	K	R	E	S	X	C
T	O	A	N	M	U	I	A	M	J	V	F
A	S	L	F	F	H	H	J	N	X	A	A
Z	O	E	I	F	G	H	B	V	I	F	I
S	E	Z	X	K	P	D	I	G	P	M	K
A	F	T	R	D	I	B	E	O	Ñ	J	O
L	B	R	S	V	F	R	J	G	L	K	T
B	T	A	F	T	U	L	T	J	N	I	A
N	I	K	E	A	G	G	N	E	J	U	L
A	M	N	J	G	T	I	L	K	P	Y	O
S	U	H	R	F	R	K	A	L	G	T	B
Z	A	I	O	T	N	O	R	F	Q	R	E

ASMAKIZUNAK

-Maindire bat, harizkoa ez, dena
estaltzen du baina ura ez. Zer da?

-Zangorik ez eta azkar dabil. Zer da?

-Balio du jazteko, balio du ukitzeko,
txalo egiteko, eta nola ez! Orri hau
pasatzeko. Zer da?

-Eguzkia hasieran bukaeran lorea. Zer
ote da?

TXISTEAK

Lasterketa batean:

-Aita, zergatik doaz korrika bizian
gizon horiek?

-Lehenengoari saria ematen
diotelako.

-Orduan, zergatik egiten dute korrika
gainerakoek?

Bi gazte zeuden tabernako barran.

-Zergatik ari haiz garagardoa lastoz
edaten?-galdetu zion batek besteari.

-Berriro ez nuela koparik ezpagnetara
eramango agindu nion aitari.- erantzun
zion bestea.

ERANTZUNAK

Hizki-zopa: 'San Blas' jauregi, minak, petrikilos, frontoia, kartzeia, polastokia.

Asmakizunak: Elurra, berria, eskua, eguzki-lore.

BELARDIAN ASKE HAZITAKOA

- Hazkuntza, 84 egun gutxienez
- Zerealetan oinarritutako elikadura
(Artoa %60, belarra eta beste zereal batzuk)

*Benetakoa,
goxoa, naturala*



Gure baserriak bizirik!

Eraman ezazu etiketa eta garantiaren eraztun zenbakituarekin batera

Zabalegi Aldea z/g 20214 ZERAIN (Gipuzkoa) Tfnoa.: 943 80 01 61 lumagorri@lumagorri.es



JOXE TELLERIA, S.L.
Aseguruak . Korreduria

Plaza Erauskin, 2
20200 BEASAIN (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 882 643 / 943 887 155
Fax: 943 887 155